



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACION,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACION

Hizkuntzak irakatsi eta ikasteko markoa EAEn

*Proposamen
berritzailea
eta eleanitza
XXI
menderako*





IKASTEREDUAK : GIDOIA

- Ebaluaketak eta emaitzak. 2-34 or.
- NONDIK GATOZ: Gaur egundainoko ibilbidea: 35-82 or.
- Batera bilduzko txostena: 83-134 or.
- Hainbat agenteren ekarpenak:
 - a.- Adituen ekarpenak:
 - François Grin aditua. 135-136 or.
 - Josiane F. Hamers aditua. 137-138 or.
 - Ignasi Vila aditua. 139-140 or.
 - Hugo Baetens aditua. 141-143 or.
 - Antoni Milian aditua. 144-146 or.
 - b.- Zenbait gizarte-eragileren ekarpenak:
 - Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. 147-151 or.
 - Euskadiko Eskola Kontseilua. 152-159 or.
 - Euskararen Gizarte Erakundearen KONTSEILUA. 160-161 or.
 - CCOO sindikatua. 162-166 or.
 - STEE EILAS sindikatua. 167-172 or.
 - LAB sindikatua. 173-176 or.
 - ELA sindikatua. 177-180 or.
 - Patronala: kooperatibak 181-187 or.
- HUISen proposamena. 188-222




HIZKUNTZEN EBALUAZIOEN EMAITZAK GURE HEZKUNTZA- SISTEMAN

- EUSKARA
- GAZTELANIA

OHARRAK:

- EBALUAZIO DESBERDINETAN LORTUTAKO PUNTUAZIOAK EZIN DIRA ALDERATU.
- PUNTUAZIO BAKOITZA MAILA DESBERDINETAKO PROBA DESBERDINETAN OINARRITUTA DAGO, HELBURU DESBERDINAK DAUZKA ETA OSAGAIAK ERE DESBERDINAK DIRA.
- ESKALAK TEORIKOAK DIRA, EZ BAITA KONTUAN HARTZEN PROBAREN ZAILTASUNA.
- ALDERAKETA POSIBLE BAKARRA: BAKOITZEAN, TALDEEN ARTEKO ORDENA, ETA, BEHARBADA, EUREN ARTEKO DISTANTZIA.



ISEI·IVEI



- OHOkoko 2. mailako ikasleen euskara- eta gaztelania-maila neurtzea A, B eta D ereduetan.
- Euskara- eta gaztelania-mailari eragiten dioten aldagaiak aztertzea.
- Euskal Hezkuntza Sistemaren (1984) hizkuntz egoerari buruzko datu kuantitatibo eta kualitatiboen lorpena.



Puntuazio orokorrak Lehen Hezkuntzako 2. mailan

Eredua	Euskara	Gaztelania
A	2	7.4
B	4.6	7.6
D	7.6	7.1



Puntuazio orokorrak Lehen Hezkuntzako 5. mailan

Eredua	Euskara	Gaztelania
A	3.2	7.5
D	7.7	6.9



- A, B eta D ereduetan OHOkoko 5. mailan ikasleek duten euskara- eta gaztelania-maila neurtzea.
- Hizkuntza horien ikaskuntzan eragiten duten aldagaiak aztertzea.
- Lortutako datuen (1987an jasoak) eta (1984) EIFE 1eko datuen konparazioa.



Puntuazio orokorrak Euskaran

Eredua	x	S
A	23.17	11.42
B	59.96	16.92
D	79.04	8.71



EIFE 2

Euskararen irakaskuntza: Faktoreen eragina.

1989

Puntuazioa orkorrak Gaztelanian

Eredua	x	S
A	79.81	7.99
B	77.48	7.56
D	73.77	9.31



- OHOk 2. mailako ikasleen euskara- eta gaztelania-maila neurtzea A, B eta D ereduetan.
- Euskara- eta gaztelania-mailei eragiten dieten aldagaiak aztertzea.
- Lortutako datuak EIFE 1 (1984) delakoari dagozkionekin alderatzea.



EIFE 3

Euskara-proben batez bestekoak

Eredua	x	S
A	32.23	17.27
B	85.77	27.76
D	120.89	15.53

ESKALA: 0-157,2



EIFE 3

Gaztelania-proben batez bestekoak

Eredua	x	S
A	32.23	17.27
B	85.77	27.76
D	120.89	15.53

ESKALA: 0-157,2



- A, B eta D ereduetan eskolatutako OHOko 8. mailako ikasleek euskaraz eta gaztelaniaz irakurritakoa eta idatzitakoa ulertzeko duten maila neurtzea.
- Hizkuntz gaitasunari buruz lortutako datuak osatzen dituzten beste datu soziolinguistiko batzuk aztertzea.
- Ikastetxean euskararen erabilera aztertzea.



HINE

OHOko 8. mailako ikerketa, A, B eta D ereduak

ESKALA: 0-60

Puntuazio orokorrak

Eredua	x	S
A	17.90	06.68
B	34.65	09.22
D	42.03	08.72

Euskara


Eredua	x	S
A	38.40	08.32
B	37.49	10.24
D	37.15	09.57

Gaztelania



Lehen Hezkuntzako 6. mailako ebaluazioa. 1995

EUSKARAKO BATEZ BESTEKOAK 95
(puntuazio zuzenak)



TRI ESKALA: 0-500



Lehen Hezkuntzako 6. mailako ebaluazioa.1999


- Ebaluatutako arloetan ikasleek egindako lanaren emaitzak eta emaitza horiek 1995.ean lortutakoekin alderatzea.
- 1995.eko euskarako emaitzak eta laginaren geruzetan egindako konparazioak.



Lehen Hezkuntzako 6. mailako ebaluazioa. 1999

PORTZENTAJE-ESKALA: 0-100

IKASLEEN PORTZENTAJEA PUNTUAZIO-TARTEAREN ARABERA.
GAZTELANIA





DBHko ebaluazioaren txostena 2000


- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4. mailako ikasleen lanaren emaitzak ondoko arloetan: Euskara eta Euskal Literatura, Gaztelania eta Gaztelaniazko Literatura, Matematikak eta Natur Zientziak.
- Emaitzak hizkuntza ereduka, edukien multzoka eta jarduera kognitiboka.




DBHko ebaluazioaren txostena 2000

TRI ESKALA: 0-500

Puntuazioak Euskarari eta Literaturari: Hizkuntz
ereduak



Emaitzak Gaztelanian eta Literaturari
hizkuntz ereduak





Hizkuntzak eta euren ikasketa Euskal Hezkuntza Sistematan. 2004

- Hizkuntzen egoeraren deskribapena EAeko Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe-motarik esanguratsuenetako batzuetan.
- Hizkuntzen irakaskuntza – ikasketaren kudeaketa ikasleek lortzen dituzten emaitzekin lotzen duten oinarrizko elementuak aztertzea.
- Ikastetxeak hartzen dituen erabakiek eskolako hizkuntzen ikasketa-mailan daukaten eragina aztertzea.



Hizkuntzak eta euren ikasketa Euskal Hezkuntza Sistematan. 2004

Ondorioak ondoko ataletan banatzen dira:

1. Hizkuntzen erabilera eta hizkuntz jarrerak eta kontzientzia.
2. Irakaskuntza-taldearen hizkuntz konpromisoak.
3. Antolaketa hizkuntzen ikasketan.
4. Metodologia eta estrategiak hizkuntzen ikasketarako.
5. Ikasle etorkinen trataera eta hizkuntzen ikasketa.
6. Ikerketaren beste ondorio batzuk.



Probako Hizkuntzaren eragina Ebaluazioen emaitzetan. 2004

- Hezkuntza elebiduneko programetan nazioarteko probetan ikasleek egindako lanari buruzko ikerketa.



Probako Hizkuntzaren eragina Ebaluazioen emaitzetan. 2004

Ondorio nagusiak:

- Probako hizkuntzak garrantzia dauka familia-hizkuntza desberdinetatik datozen eta irakaskuntza-eredu elebidunean eskolatuta dauden ikasleei dagokienez.
- Proba ikaslea erosen sentitzen den hizkuntzan egiteak eragin handia dauka ikasleak benetan dakiena erakusteko orduan.
- Murgiltze-ikasleek lan hobea egiten dute probak familia-hizkuntzan egiten dituztenean; horrek esan nahi du murgiltze-sistemak familia-hizkuntzan gaitasuna hartzea ahalbidetzen duela eta gainera garapen kognitiboa ematen duela murgiltze-hizkuntzan.



PISA 2003 EBALUAZIOAREN LEHEN TXOSTENA.

Emaizak Euskadin

- 15 urteko ikasleen Nazioarteko Ebaluaziorako egitasmoa Matematiketan, Irakurketan, Zientzietan eta Problemen ebazpenean.




PISA 2003 EBALUAZIOAREN LEHEN TXOSTENA

Emaitzak Euskadin

ELGA BATEZ BESTEKOA: 500
HERRITARREN BI HERENEK 400 ETA 600 PUNTU
ARTEAN DAUZKATE

Matematiketako emaitzak PISA 2003 geruzen arabera






EUSKARAKO B2* MAILAREN EBALUAZIOA. DBH 4. 2004

ESKALA: 0-100


EUSKARAKO PROBA GAINDITU DUTE. EREDUKA





ESKALA: 0-100

EUSKARA HEZKUNTZA-SAREAREN





EUSKARAKO B2* MAILAREN EBALUAZIOA.

DBH 4. 2004

ETXEAN ERABILTZEN DEN HIZKUNTZA	GAI			
	B eredua		D eredua	
	Kop.	%	Kop.	%
Euskara batere ez	101	26,6	240	47,6
Euskara	9	47,5	214	74,1
Guztira	109	27,5	454	57,2

ESKALA: 0-100

PORTZENTAJE-ESKALA: 0-100



LEHEN HEZKUNTZAREN EBALUAZIOA. 2004

Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleei aplikatutakoa.

Emaitza orokorrez gain, honen berri ere ematen du:

- Geruza bakoitzaren ezaugarriak eta emaitzak.
- 1999.ean eta 2004.ean geruza bakoitzerako egindako ebaluazioen emaitzen azterketa eta konparazioa.

- **Geruzak:**

A eredu publikoa

B eredu publikoa

D eredu publikoa

A eredu itundua


B eredu itundua

D eredu itundua



LEHEN HEZKUNTZAREN EBALUAZIOA. 2004

Ikasleen portzentajea hizkuntz eredu bakoitzean Euskaran egindako lanaren arabera






LEHEN HEZKUNTZAREN EBALUAZIOA. 2004

TRI ESKALA: 0-500

1999ko eta 2004ko ebaluazioen emaitzak (TRI puntuazioa)






LEHEN HEZKUNTZAREN EBALUAZIOA. 2004

TRI ESKALA: 0-500

Emaitzen konparazioa familia-hizkuntzaren arabera







EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACION,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACION

ISEI-IVEIren argitalpen guztiak:
<http://www.isei-ivei.net>





- Euskarari dagokionez, ebaluazioen emaitzek adierazten dute zenbait irakasteredutan emaitza kaskarrak lortu direla eta lortzen direla urteetan zehar.
- Gaztelaniari buruzko emaitzetan, berriz, ez dago alde handirik ikasteredu batetik bestera.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACION,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACION

Nondik gatoz?

EAEko irakaskuntzaren ibilbidea: zenbait datu eta azalpen

Euskara Zerbitzua
Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritza



Abiaturua: nondik gatoz?

- Abiapuntuan eskola-sistema ele bakarra zen: dena gaztelaniaz ikasten zen. Horren aurrean, zerbait egiteko premia argia zegoen.
- Euskararen egoera kaskarraren aurrean, bera indarberritzeko nahia zabaldu zen gure gizartean.
- 1975tik aurrera aukera berriak zabaldu ziren.
- Indarberritze hori, neurri handi batean, eskolaren esku jarri zen.
- Zer egin du eskolak azken hiru hamarkadotan elebitasun orekatua lortzeko?
- Hizkuntzen trataeran oso aldaketa sakonak egin dira 1975. urtetik aurrera.



Estatutu aurreko aldia

- Autonomia Estatutua onartu aurretik euskal irakas-sistemari konponketa-modu egoki bat eman nahi izan zitzaion. Horrela:
 - ✓ Gobernu Zentralak, Errege Dekretu bidez, **sarbide zuzena** eman zion euskarari Euskal Herriko irakas-sisteman.
 - ✓ Eusko Kontseilu Nagusiko Hezkuntza Sailaren eta Euskal Herriko (orduan Bilboko) Unibertsitatearen arteko elkarlanez **Irakasle-eskola publikoen** birmoldatze-lan sakonari ekin zitzaion, irakasle-gai euskaldunak sortzeko helburuz.
 - ✓ Ikas-ereduen diseinua garai horretan egin zen.
 - ✓ Euskararen Irakasle Diploma sortu zuen Hezkuntza Sailak.
 - ✓ Guzti hau medio eta baliabide falta nabarmenez suertatu zen.
 - ✓ Azpimarratzeko modukoa da, bestetik irakaskuntza elebiduna lortzeko gizarte-eskari zabala.



EAEko lege-markoa. Estatutua eta Konstituzioa

- Hezkuntza-politika berriak Euskal Herrirako Autonomia Estatutua du marko-arau gidari. Estatuaren seigarren artikuluan zera dio:
 - ✓ Euskara, Euskal Herriaren berezko hizkuntza, gaztelaniarekin batera hizkuntza ofiziala izango da Euskadin.
 - ✓ Autonomia Erkidegoaren amankomuneko Erakundeek, Euskadiren leku batetik besterako desberdintasun soziolinguistikoak kontuan izanik, hizkuntza bien erabilera garantizatuko dute, beren izaera ofiziala arautuz eta beren ezagutza ziurtatzeko behar diren neurri guztiak hartuz eta bideratuz.
 - ✓ Bestetik, Konstituzioak dioenez, irakaskuntza Euskal Autonomia Erkidegoari dagokio.



- Euskararen Erabilera Normaltzeko Legea (1982)
 - ✓ Ikasketak bi hizkuntza ofizialetan egiteko eskubidea. (5. atala b).
 - ✓ Beharrezko neurriak hartzera behartzen du Administrazioa, derrigorrezko ikasketa-aldia amaitzerakoan, ikasle orok hizkuntza ofizial bien behar adinako ezagutza praktikoa izan dezan.

- Euskal Eskola Publikoaren 1/93 Legea
 - ✓ ‘Euskara eta gaztelania nahitaez sartuko dira euskal eskola publikoan gara daitezen irakaskuntza-programetan, bi hizkuntzen ahozko zein idatzizko ulermena eta adierazmena benetakoa izan eta gutxienez ohizko harremanetarako eta erabilerako hizkuntza gisa erabili ahal izan daitezen.’



Legearen aplikazioa: ereduak

- Uztailaren 11ko 138/1983 Dekretua eta abuztuaren 1eko Agindua
 - ✓ Euskara eta gaztelania ikastetxe guztietan derrigorrez irakatsi beharreko irakasgaiak dira.
 - ✓ Hiru eredu hauen bidez egin daiteke hizkuntza ofizial bion irakaskuntza: A, B eta D.
 - ✓ Eredu bakoitzaren ezaugarri nagusiak:
 - ✓ A EREDUA: Irakaskuntza, ia osorik, gaztelaniaz. Euskara asignatura moduan.
 - ✓ B EREDUA: Irakaskuntza erdia gaztelaniaz eta beste erdia euskaraz. Hizkuntza biak irakasbide.
 - ✓ D EREDUA: Irakaskuntza euskaraz egiten da, ia osorik. Gaztelania asignatura moduan.




ELE BIKO IRAKASKUNTZAREN GARAPEN-BIDEA

B eta D ereduaren hazkundearen “atzean” aurrelan handia egon da:

- Irakasle-gai euskaldunak sortzea.
- Irakasleak euskalduntzea.
- Ikasmaterialak sortzea.
- Euskara-maila neurtzeko agiriak: EGA eta Hizkuntza Eskakizunak.
- Erabilera normaltzeko ekimenak.




ELE BIKO IRAKASKUNTZAREN GARAPEN-BIDEA: EAEKO jaiotze-datuak







EAEko ikasle-kopuruen bilakaera, guztira






EAEko ikasle-kopuruen bilakaera, sareka






Ereduen bilakaera zenbaki absolutuetan






Ereduen bilakaera zenbaki portzentualetan






Ereduen bilakaera Haur eta Lehen Mailako Hezkuntzan zenbaki absolutuetan






Ereduen bilakaera Haur eta Lehen Mailako Hezkuntzan zenbaki portzentualetan






Ereduen bilakaera Haur eta Lehen Mailako Hezkuntzan herri-ikastetxeetan






Ereduen bilakaera Haur eta Lehen Mailako Hezkuntzan ikastetxe pribatuetan









Ereduen bilakaera DBHn, Batxilergoan eta Lanbide Heziketan






Ereduen portzentajeak irakasmaitan, 1997-98an eta 2006-07 ikasturteetan






Herri-ikastetxeetako bilakaera, Bigarren Hezkuntzan






Ikastetxe pribatuetakoko bilakaera, Bigarren Hezkuntzan






Giza baliabideen hizkuntza-osaera: Bilakaera






IRALeren bidezko euskalduntzea eta hizkuntza- prestaera Zenbait datu



Oinarrizko ikastaroak, ikasketari-kopuruak 1981-1998




IRALeren bidezko euskalduntzea eta hizkuntza- prestaera Zenbait datu



Oinarrizko ikastaroak, ikasketari-kopuruak 1998-2007




IRALeren bidezko euskalduntzea eta hizkuntza- prestaera Zenbait datu



Goi-mailako ikastaroak, ikasketari-kopuruak 1996-2007



IRALeren bidezko euskalduntzea eta hizkuntza- prestaera Zenbait datu



Irakastorduz kanpoko goi-mailako ikastaroak, ikasketari-kopuruak



Ikasmaterialgintza: EIMA

- **Materialen sorrera.** Urtero 350-400 ikasmaterial argitaratzen da lau deialdien babesean.
- **Kalitate kontrola:** onespren-prozesua (295/1998 Dekretuak arautua)
- **Diru-laguntzak.** Lau deialdi.
- **Katalogazioa. EIMA katalogoa**
- **EIMA programaren xedea:** unibertsitate aurreko ikasmailetarako euskarazko ikasmaterialak sortu, argitara eman eta zabalkundea izan dezaten sustatze-lana egin eta laguntza eskaintzea.



NOLEGA, Ulibarri

▪ NOLEGA:

- ✓ Normalizazioaren Legearen Garapena.
- ✓ 1984an sortua.
- ✓ Bi egiteko nagusi: Eskola-giroa euskalduntzea eta Hezkuntza Administrazioa euskalduntzea.
- ✓ Hitzarmen bidezko eskaintzak.
- ✓ Euskal Girotze Barnetegiak.
- ✓ Urruzuno literatura-lehiaketa; Abelino Barriola saria.
- ✓ Irakasleen prestakuntza: GARATU eta IRALE.
- ✓ ULIBARRI programa: Ikastetxeetako Hizkuntza Normalkuntza.




Hizkuntza gaitasun agiriak

- **EGA.** 1982an sortua; 2000 urteaz geroztik ALTE (Association of Language Testers in Europe) erakundean dago Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila EGA agiriarekin; ondorioz, EGA agiria Europako hizkuntza-azterketa nagusien kalitate-parametroekin homologatuta dago.

- **Irakasleen hizkuntza-eskakizunak :**
 - ✓ **HE1:** euskara zerbitzu-hizkuntza legez erabiltzeko gaitasuna garantizatzen du.
 - ✓ **HE2:** Euskara edo euskaraz irakasteko gaitasuna bermatzen du
 - ✓ **HLA:** aurreko bien arteko gaitasun-maila da.




Egungo egoera. Ikasleak ereduak



Ikastereduen proportzioa




Egungo egoera. Ereduak irakasmailaka






Egungo egoera. Ereduak lurraldeka

Haur Hezkuntza






Egungo egoera. Ereduak lurraldeka LMH






Egungo egoera. Ereduak lurraldeka DBH






Egungo egoera. Ereduak lurraldeka Batxilergoa










Egungo egoera. Ereduak lurraldeka Lanbide Heziketa






Ereduak lurraldeka eta irakasmailaka %tan





Egungo egoera. Ereduak ikastetxe motaka


Ikastetxe publikoak





Egungo egoera. Ereduak ikastetxe motaka


Ikastetxe pribatuak






Egungo egoera. Irakasleen hizkuntza-osaera

Guztira (EAE, publiko+pribatu, irakasmaila guztiak)






Egungo egoera. Irakasleen hizkuntza-osaera Adin-tarteka





Egungo egoera. Irakasleen hizkuntza-osaera


Herri-ikastetxeetako irakasleen hizkuntza-osaera, adin-tarteka





Egungo egoera. Irakasleen hizkuntza-osaera


Ikastetxe pribatuetako irakasleen hizkuntza-osaera, adin-tarteka





Egungo egoera. Irakasleen hizkuntza-osaera


Irakasmilaka





Egungo egoera. Irakasleen hizkuntza-osaera


Herri-ikastetxeetako irakasleen hizkuntza-osaera, irakasmailaka





Egungo egoera. Irakasleen hizkuntza-osaera


Ikastetxe pribatuetako irakasleen hizkuntza-osaera, irakasmilaka





Egungo egoera. Irakasleen hizkuntza-osaera


Arabako irakasleen hizkuntza-osaera, irakasmilaka





Egungo egoera. Irakasleen hizkuntza-osaera


Bizkaiko irakasleen hizkuntza-osaera, irakasmilaka





Egungo egoera. Irakasleen hizkuntza-osaera

Gipuzkoako irakasleen hizkuntza-osaera, irakasmailaka





EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACION,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACION

BATERA BILDUZKO TXOSTENA

Lau taldeen ondorioak

Egileak: Juanjo Agirrezabala, Pello Akizu, Jasone Aldekoa, Roberto Gonzalez de Viñaspre, Lourdes Otaegi eta Mikel Zalbide.



Sarrera

- EAJ/PNV, EA eta EBren gobernu egitasmoan Irakastereduaren bilakaera aztertu eta birmoldaketa abiatzea aipatzen da egitekoen artean.
- Bi mila eta bosteko abenduaren bian egindako osoko bilkuran, irakaskuntza-sisteman finkatuta dauden ele biko irakastereduei buruzko proposamen bat aztertu zuen Eusko Legebiltzarrak.
- Eusko Legebiltzarrak, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari eskatu zion irakaskuntza arloan Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan maila orotako gaitasunak bermatuko dituen eredu berri bat aztertzeari berehala ekiteko, hezkuntza-komunitateko eragile guztiekin batera, eta ahalik eta azkarren, praktikan jartzeko, 2007ko otsailera bitarteko epean.



EBI programa

- HUIS-k Ele Biko Irakastereduak aztertzeko programa (EBI) martxan jarri zuen 2006ko urtarrilean, programa definitu, materialak bildu eta barruko lanari ekinez.
- Horretarako, lau lan-talde sortu ziren: **juridikoa**, **soziolinguistikoa**, **glotodidaktikoa** eta **operatiboa**.
- Bestetik, **Koordinazio-batzordea** sortu zen lan-taldeei laguntza emateko eta, azkenean, batera bilduzko txostena prestatzeko.



Lan-talde juridikoa

Milian i Massana, Antoni	Administrazio Zuzenbideko katedraduna. Bartzelonako <i>Autónoma</i> Unibertsitatean
Bergara Sautua, Ander	EMAKUNDEko teknikaria
Agirreazkuenaga, Zigorraga, Iñaki	Euskal Herriko Unibertsitatea. Zuzenbide Fakultateko irakaslea
Larrazabal Basañez, Santiago	Deustuko Unibertsitatea. Zuzenbide Fakultateko irakaslea
Jacue Sánchez, Nieves	Hezkuntza, Unibertsitatea eta Ikerketa Saila. Lege Aholkularitzako legelaria
Urrutia Libarona, Iñigo	UPV/EHUko Ekonomia Zientzien Fakultateko eta Konstituzio eta Administrazio Zuzenbidea Saileko irakaslea



Lan-talde soziolinguistikoa

Baetens Beardsmore, Hugo	Université Libre de Bruxelleseko katedraduna. Europar Batasuneko hizkuntza minorizatuaren batzordeko aholkularia.
Luna Arcos, Francisco	ISEI-IVEIko teknikaria
Mendiguren Bereziartu, Xabier	Euskararen Kontseiluaren presidentea
Joly, Lionel	Soziolinguistika Klusterreko ordezkaria
Osa Ibarloza, Erramun	Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioko ordezkaria
Eizagirre Garate, Ana	Euskal Herriko Ikasleen Gurasoen Elkarteko ordezkaria
Zalbide Elustondo, Mikel	Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Euskara Zerbitziburua
Erkizia Itoiz, Joseba	HABEko zuzendaria



Lan-talde glotodidaktikoa

Olaziregi Salaberria, Ibon	Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Euskara Zerbitzuaren teknikaria
Vila Mendiburu, Ignasi	Hezkuntzaren Garapen-Psikologiako katedraduna, Gironako Unibertsitatean
Ruiz Bikandi, Uri	Euskal Herriko Unibertsitatea. Gasteizko Irakasleen Unibertsitate- Eskolako irakaslea
Peñalba Alberdi, Antton	IRALEko irakaslea
Etxeberria Iñigo, Iñaki	SAREAN, Irakaskuntza Publikoko Haur eta Lehen Hezkuntzako Zuzendarien Elkarteko ordezkaria
Bueno Saez de Albeniz, Joxean	BIHE, Irakaskuntza Publikoko Bigarren Hezkuntzako Zuzendarien Elkarteko ordezkaria
Ormazabal Loinaz, Mikel	KRISTAU ESKOLAko ordezkaria
Hamers, Josiane	Quebeceko Université Lavaleko katedraduna



Lan-talde operatiboa

Grin, François	Ginebrako Unibertsitateko katedraduna
Aztiria Zabala, Juan Mari	Hezkuntza, Unibertsitatea eta Ikerketa Saileko Ikuskari-burua
Mujika Urdangarin, Kepa	Gipuzkoako Hezkuntza Lurralde Ordezkaritzako ikuskaria
Heras Marín, Jose Mari	Hezkuntza, Unibertsitatea eta Ikerketa Saileko Bigarren Hezkuntzako Planifikazio Zerbitziburua
Iturrioz Agirre, Pello	Hezkuntza, Unibertsitatea eta Ikerketa Saileko Lehen Hezkuntzako Planifikazio Zerbitziburua
Erauzkin Baraiazarra, Aitor	Hezkuntza, Unibertsitatea eta Ikerketa Saileko Pertsonaleko teknikaria
González San Vicente, Felix	Hezkuntza, Unibertsitatea eta Ikerketa Saileko Pertsonaleko teknikaria
Basagoiti Sagarduy, Idoia	Hezkuntza, Unibertsitatea eta Ikerketa Saileko Aurrekontu Zerbitzuko teknikaria
Bilbao Petralanda, Aitor	KRISTAU ESKOLAko zuzendari orokorra



Koordinazio-batzordea

Gonzalez de Viñaspre Gonzalo, Roberto	Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Euskara Zerbitzuko teknikaria
Aldekoa Arana, Jasone	B06 Basauri Galdakaoko Berritzegunea. Hizkuntza Normalkuntzako aholkularia
Akizu Lizarazu, Pello	G04 Ordizia Berritzegunea. Hizkuntza Normalkuntzako aholkularia
Otaegi Imaz, Lourdes	Euskal Hizkuntza eta Literaturako katedraduna



EBI programaren faseak

- Programak honako **hiru** fase hauek izan ditu:
 - **Lehenengo fasea:** talde bakoitza Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak egindako galdera-sorta bereziari erantzuten saiatu da. Talde bakoitzak bere ekarpen-txostena aurkeztu du. Fase hau irailean hasi ea abendu arte luzatu da.
 - **Bigarren fasea:** egun biko jardunaldi nagusia. Lau txosten horiek landu ziren elkarrekin, eta guztion arteko gogoeta-saioa bideratu zen. Berrogei bat lagun bildu ziren Miñaon, Arabako Parke Teknologikoan. Bost adituren laguntza ere izan zuten jardunaldi hartan.
 - **Hirugarren fasea:** Koordinazio-batzordeak bete du. Azken emaitza batera bilduzko txostena sortzea izan da: aurreko hilabeteetan hitz egin, eztabaidatu eta adostu denari nolabaiteko sintesi-egitura ematea da txosten honen helburua.



Batera bilduzko txostenaren osaera

- 1.- Hizkuntzak gizarte-giroan: jarrerak eta iritziak.
- 2.- Ele biko irakaskuntzaren lege-oinarria.
- 3.- Lortutako emaitzak, aurrez ezarritako helburuen argitan.
- 4.- Zer egin liteke, euskararen erabilera indartzeko?
- 5.– Aurrera begira, zer? Adostasunak eta bide-banatzeak.
- 6.- Berariaz aztertu diren hobekuntza-bide alternatiboak.
- 7.- Hobekuntza-bide alternatiboen bideragarritasuna.
- 8.- Zenbait gomendio.



I.- Hizkuntzak gizarte-giroan: jarrerak eta iritziak.

Hiru ikuspegi nagusi:

- “Eskola bidezko euskalduntze-prozesua ez da fruitu onik ematen ari”. Administrazioari jarrera sendoagoa eskatzen zaio.
- “Euskalduntze-prozesua azkarregi joan da”. Hezkuntza-kalitateari eta aniztasun soziokulturalari kalte egiten ari zaio.
- Goiko bi ikusmoldeen hainbat kritika konkretu erabat onartuz (zenbaitetan, inork baino lehenago eta ozenago formulatuz), EAEko eskola-munduan egin dena funtsean ondo egina dago.



II. Ele biko irakaskuntzaren lege-oinarria

II.1. 1978ko Konstituzioa.

II.2. 1979ko Autonomia Estatutua.

II.3. 1982ko Euskararen Erabilera Normaltzeko legea.

II.4. 1993ko Euskal Eskola Publikoaren Legea.

II.5. Osagarriko legeak eta arauzko xedapenak.



II. Ele biko irakaskuntzaren lege-oinarria

II.6. Zenbait ondorio eta balioespen, EAEko lege-oinarriaz.

- Gurasoen (edo tutoreen) aukera, seme-alabek eskolaketa zein hizkuntzatan egingo duten erabakitzekoa, egungo lege-markoaren oinarritzko ezaugarria da.
- Ikusteko dago lege horiek aldatuz ere zer formulazio alternatibo konkretu ezar daitekeen, EAEko eta Estatu osoko legeria nagusia ongi errespetatzen duena eta norbanako irizpidea (konkretuki, nagusiki gaztelaniaz ikasteko eskubidea) saihestu dezakeena.
- Euskaraz ongi ikasteko, inork gutxik duda egiten du D eredia dela, oro har, euskalduntze-ahalmenik handienekoa. Zer preziotan egin liteke, ordea, D eredia orokortzea bezalako birmoldaketa erabatekorik? Zer neurritan kabitzen da hori, lehenik eta behin, indarrean dagoen lege-marko nagusian?



III. Lortutako emaitzak aurrez ezarritako helburuen argitan.

Lau atal:

III.1.- Ikasleen garapen kognitiboa.

III.2.- Hizkuntzen ezagutza maila.

III.3.- Euskararen erabilera.

III.4.- Emaitzen balioztapena gizarte-perspektiban.



III.1. Ikasleen garapen kognitiboa

- Eskolaren lehen helburua ikaslearen garapen kognitiboa segurtatzea da.
- Hortaz, galdera hauxe planteatzen da: Ongi segurtatzen al du gure eredu-sistemak ikasle guztien garapen kognitiboa?
- Galdera honi erantzun betea emateko, ikerketa-lerro sendoak eta konparazio-gune egokien beharra ikusten du Batzordeak: *Pisa*, beste Autonomien emaitzekiko konparazioak, ereduaren arteko konparazioak...
- Konparazio-gune horien arabera, argitara eman diren emaitzek ez dute oinarririk ematen L2 bidez ikasteak atzerapen kognitiboa dakarrela esateko.



III.2. Hizkuntzen ezagutza-maila

III.2.1.- Lan-talde glotodidaktikoaren ikuspegia:

- a) Gaztelania-maila egokia lortzen dute ikasleek.
- b) Euskararen ezagutza-maila egokia, aldiz, ez dago beti ziurtatuta.
- c) Atzerriko hizkuntza. Atzerriko hizkuntza indartsuen premia gero eta nabarmenagoa da gure artean.
- d) Etorkinak. Eskolak giza talde horien integrazioa ahalbideratu behar du bertako hizkuntzak irakatsiz. Ikasleen lehen hizkuntzak oso kontuan izango dira eta, ahal den neurrian, ahoz eta idatziz, haiek mantendu eta garatzea sustatuko da.



III.2. Hizkuntzen ezagutza-maila

III.2.2. Lan-talde soziolinguistikoaren ikuspegia:

- a) **Ulertzeari dagokionez**, gero eta ikasle gehiagok ulertzen du euskaraz.
- b) **Hizketan ere** lehen baino gazte gehiagok daki euskaraz.
- c) **Euskaraz irakurtzen eta idazten ere** badakite gainera, halako neurri batean, gazte horietariko askok.
- d) Euskarazko irakaskuntzak izan duen garapena eta lortu dituen emaitzak aipagarriak izan dira.
- e) Erdaraz tutik ez dakien euskaldunik ez dago EAEn, urrundik ere, 16 urteko ikasleen artean.
- f) Era bateko edo besteko ikasle-kopuruei dagokienez, erdal elebidunek osatzen dute, alde handiz, multzo nagusia.
- g) Ikasle batzuen eta besteen gaztelaniazko gaitasun-mailen artean dagoen aldea txikia da oro har.
- h) Aldakortasun handiagoa ageri da, aldiz, EAeko ikasleen euskara-mailan: Euskararen ezagutza-maila egokia **ez dago beti ziurtatuta**.



III.3. Euskararen erabilera

Eskolaren eragina hizkuntzen erabileraren alorrean oso partziala da (bereziki adin tarte batetik aurrera).

- Haurra txikia denean errazagoa da eskolarentzat euskararen erabilera segurtatzea edo indartzea.
- Gazteen artean, berriz, askotan, kaleko hizkuntza bihurtzen da harreman-hizkuntza: bai A eta B ereduetan (eredu horiek indartsuen diren ingurumenean, estatistikoki, erdara izan ohi da ia beti kaleko hizkuntza nagusia), eta bai D ereduan ere.
- Egoera hori izanik, bistan da ez dela **ikasleen hizkuntza-erabileran** euskal eredu sendoenen garapenean bezalako aurrerabiderik lortu, ezta euskarazko gaitasun-mailan lortu diren emaitzen parekorik ere.
- Hala ere, ***ezin da ahaztu 1982ko legea ez dela euskararen ezagutza normaltzea***, euskararen erabilera normaltzea baizik.



III.4. Emaitzen balioztapena gizarte-perspektiban

III.4.1. Lan-talde glotodidaktikoaren ikuspegia:

- a) **Hizkuntzak ez dira eskolan bakarrik ikasten:** Eskolak oinarri sendoak jar ditzake hizkuntza-ikaskuntza prozesuan, baina ikasleak lortu duen ezagutza hori gizarteak sendotu behar du.

- b) **Eskolaz kanpoko normalkuntza prozesua apala izan da:** Administrazioaren beste atalek eta sare sozialaren beste eragile batzuek ere badute erantzukizunik hutsune horretan.



III.4. Eraitzen balioztatpena gizarte- perspektiban

III.4.2. Lan-talde soziolinguistikoaren ikuspegia:

Euskara-erdararen erabilerak eguneroko gizarte-bizitzan ageri duen eramoldearen inguruko kezkek:

- Euskarak eskola-giroan izan duen zabalkundea, eta eskolatik kanporako bilakaera, ez doaz eskuz esku.
- Lan-munduari dagokionez, esan liteke kopuruz eta proportzioz, euskarak nekezago egin duela aurrera azken mende-laurdenean.
- Gizarte-berrikuntzak eragin negatiboa izan du euskararen gordeleku eta transmisio-bide izan diren esparruetan: etxea, auzoa, jai-ospakizunak, lana. Ondorioz, euskal arnaguneen urritzea eta ahultzea etorri da. Erdarek sarbide sendoagoa dute modernitatearen munduan euskarak baino.
- Gizartearen hainbat sektorek ez du Euskal Herriaren menderik mendeko izaera berezia oro har eta bertako hizkuntza zaharra batez ere, globalizazioaren zurrunbiloan galtzerik nahi.
- Eskola eta gizartea lokarri sendoz estekaturik daude, eta lokarri horiek ezin hauts litezke irakasle-jendearen ekimen hutsez. Horixe da, besteak beste, mende-laurden honetan ibilitako bideak behin eta berriro erakutsi diguna. Hurrengo atalburuan xehexago landuko dugu gai hori.



IV.- Zer egin liteke, euskararen erabilera indartzeko?

Zer dago eskolaren esku, eta zer ez?

IV.1. Teoriak dioena (J.A. Fishman):

- Eskolaren ahalmena funts-funtsetik aldatzen ari da azken urteotan. Eman dezakeena, batez ere erregistro jaso-formal-espositiboetan ematen du eskolak, denik eredu euskaldunenean ere.
- Euskara eskolaz kanpoko beste esparruetan erabiltzen ez bada, belaunez belauneko transmisio-bide naturalak huts egin dezake eta, ondorioz, euskaraz ezer asko jakin gabe iritsiko dira EAEko haur gehienak eskolara.
- Eskolaz eta etxe-auzoez gainera, beste hainbat gizarte-zerbitzuren parte-hartzea ere kontuan hartu behar da, hizkuntza ahuldua haurren eta gazteen artean indarberritzeko planak eratzerakoan.
- **ONDORIOZ:** etxean eta famili giroan, auzoan eta lagunartean, hurbileko kale-bizitzan eta laguntza-zerbitzuetan indartu beharra dago euskara.



IV.- Zer egin liteke, euskararen erabilera indartzeko?

Zer dago eskolaren esku, eta zer ez?

IV.2. Bertako esperientziak dioena:

- Hizkuntzak ez dira eskolan bakarrik ikasten.
- Ukatzerik ez dago eskolaz kanpoko normalkuntza prozesua apala izan dela.
- Ereduen emaitzari dagokionez, badago batez bestean mailakatze argia: D eredukoak euskaldunago dira B eredukoak baino, eta B eredukoak euskaldunago (nahiz eta, gehien-gehienetan, erdal elebidun izan) A eredukoak baino.
- Normalean hizkuntzen belaunez belauneko transmisioa eta iraupena familia bidezko eta hurbileko gizarte-ingurumenaren baitako sozializazioak bermatu izan du. Azken hamarkadotako gizarte-berrikuntzaren eskutik, ordea, transmisio-bide horiek ahuldu dira.



IV.- Zer egin liteke, euskararen erabilera indartzeko?

IV.3. Eskola esparrurako zenbait irizpide:

- Hizkuntzaren belaunez belauneko transmisio-bidearen ikuspegi globalean txertatu behar da eskolaren zeregina.
- Ereduen hobekuntza-aukera, eta horretatik espero litekeen etekina, perspektiba zabalago horretan txertatu behar da, beraz.
- Euskara eskolaren bidez bakarrik indarberritzeko ustea alde batera utzi behar da, emaitza onak lortu nahi badira, eskolaz harantzago ere joan behar da.
- Ezinbestekoa da zenbait esparrutan ekimen zehatzak garatzea: gelaz kanpoko saioen bidez erabilera-guneak indartu, Curriculumaren euskal dimentsioa landu, ikasmaterialen kalitatea bereziki zaindu...
- Gurasoek aukeratzeko eskubidea izateak euskararen irakaskuntzan izan ditzakeen alderdi onuragarriak ere hartu behar dira kontuan.
- Aldaketak era progresiboan egitea komeni da.



IV.- Zer egin liteke, euskararen erabilera indartzeko?

IV.4. Eskolak zertan hobetu lezake ikasleen euskarazko gaitasun-maila?

- **Irakasbideak** hobetzea.
- Hizkuntza irakasteko **metodologia** hobetu behar da eskolan.
- **Irakasleen** gaitasun linguistikoa eta prestakuntza metodologikoa areagotzea.
- Prestakuntza teorikoa indartu eta praktikaren azterketari lotuta, hausnarketarako eta ikerketarako bideak areagotzea behar-beharrezkoa zaigu: ikerketa, Unibertsitatearen lankidetzak, irakasleentzako ikastaroak, ebaluaziorako lerroak eraiki...
- Bigarren hizkuntza eskuratzeko bidea **mailakatu**.
- **Eskola bakoitzak** bere hizkuntza-proiektua egin behar du.
- **Haur Hezkuntzan** euskara luze-zabalean landu.
- **Irakasteko tresna** bihurtu behar da euskara.
- Gaztelania irakasgai.
- Eredu indartsuenak ere hobetu.



IV.- Zer egin liteke, euskararen erabilera indartzeko?

IV.5. Eskolatik kanpora zer egin liteke?

Argi dago eskolaz kanpoko beste erabilera-esparruak ere landu behar direla:

- Euskararen erabilera areagotzeko urratsak sendotu egin behar dituzte **eskolaz kanpoko erakunde publikoek** eta **elkarte-enpresa pribatuek**: kirolean, aisialdian, ikastaroak antolatuz, txangoak eginez...
- Ekimen horiek ongi **antolatuak** eta zuhur **kudeatuak** izango dira.
- Ekimen horien eskumena publikoa denean (udalak, mankomunitateak, aldundiak, Jaurlaritzako beste zenbait sail,..) **ingurumen-planak adostu** behar dituzte kasuan kasuko sailak/sailek, beste herri-aginte horiek eta lekuan lekuko ikastetxeek, guraso-elkarteek eta auzo-elkarteek adostu behar lituzkete.
- Ekimen horien eskumena edo inizatiba pribatua denean, berriz, kasuan kasuko eragileentzako **asistentzia teknikoa** eta **laguntza-bideak** eratu behar dira.
- Ekimen horien bidez, **hizkuntzaren aldaera-sorta zabala lantzeko aukera** izaten da: eguneroko hizkera arrunta, euskalkiak, etab.



IV.- Zer egin liteke, euskararen erabilera indartzeko?

IV.6. Ohar osagarriak:

- Eskolak bere ingurumen fisikoarekin, profesionalarekin eta soziokulturalarekin harremanak baditu. Hori kontuan hartuz, garrantzitsua da eskolak harremanok **zein hizkuntzatan garatzen dituen zaintzea** (harreman-sare profesionalarekin, gurasoekin, etab.)
- **Ebaluazioak** beharrezkoak dira. Joera handiegia dago ebaluazio-saio bakar batetik generalizazioak egiteko. Bestetik, aztergaia bera dibertsifikatu beharra dago: hizkuntz-gaitasunak, garapen kognitiboa, erabilera...
- Adituen arteko jakite-kontuak txukun argitzen asmatzeaz gainera, herritarren eta beraien ordezkarien **asmoak, jarrerak** eta **jokabideak** ere inportanteak dira oso, eskuartean dugun kontu honetan.
- Identifikazio eta mendekotasun ideologiko itxiegiak **saihesten** saiatu beharra azpimarratzen da.



V.- Aurrera begira, zer? Adostasunak eta bide-banatzeak

V.1. Adostasunak

V.1.1. *Euskara, ardatz.* Hezkuntza-sistemaren ardatz izan behar du euskarak, oro har, ez bigarren mailako osagai. Hala ere, ikuspegi dibertsifikatuagoa aldarrikatzen saiatu da zenbait kide.

V.1.2. *Hobekuntza-lerro nagusiak.* Funtsean, honako lau lerro hauetan ikusten da hobekuntzaren beharra:

- ✓ Irakasleen prestakuntza
- ✓ Jarrerren lanketa
- ✓ Ikasmaterialen kalitatea
- ✓ Adostasun zabalaren beharra

V.1.3. *Lanbide Heziketa berariaz hartu behar da kontuan.* Egungo egoera dela medio, lehentasun bideragarriak jarri behar dira arlo horretan. Hiru koordinatu-ardatz hauek uztartu behar dira:

- ✓ Gizarte-beharrak zehaztea
- ✓ Ikasleen eskolatze-eskaria kontuan hartzea
- ✓ Baliabideak kontuan hartzea



V.- Aurrera begira, zer? Adostasunak eta bide-banatzeak

V.1. Adostasunak

V.1.4. Glotodidaktikazko hobekuntza-neurri teknikoak zehaztea

- ✓ Murgiltze-metodoaren baldintzak
- ✓ **Ama-hizkuntzaren** trataera
- ✓ Lortu beharreko **gaitasun-mailen** erreferentziazko zehaztapena, agian LMH eta DBH amaieran
- ✓ **Maila bereziak** (abiadura eta ibilbidearen arabera)
- ✓ Gaitasun-mailen **ebaluazio-bidea definitzea** (Kanpo-ebaluazioak)
- ✓ Ele-aniztasuna, generalizatzekotan, goi mailetan egitea komeni da (kanpo-adituen gomendioa)
- ✓ Euskarazko ikasbidearen (oraingo D ereduaren) **legezkotasuna bermatzea**
- ✓ Oraingo A ereduaren birmoldaketa: **euskara ikasbide** bihurtu

V.1.5 . Etorkinen eta beren seme-alaben problematika berriari erantzun egokia eman behar zaio.



V.- Aurrera begira, zer? Adostasunak eta bide-banatzeak

V.2. Bide-banatzeak

V.2.1. Berrikuntzarik egin behar al da? Berrikuntzaren beharraz adostasuna badago ere, berrikuntza nola egin behar den, zer aldatu behar den, zer abiadatan eta zer orientabidetan **eztabaidagai** dira.

V.2.2. Eredu-sistema aldatu edo eguneratu behar da? Bi jarrera:

- ✓ D eredia denentzat beharrezkoa jarri behar da, hauxe baita euskaldun sendo izango direla garantizatzen duen eredu bakarra.
- ✓ Dugun sistema eguneratuz, baina dagoenetik abiatuz, hobekuntza-lerroak indartzearen aldeko apustua egin behar da.

Bi jarrera hauek bateraezinak dira, baina baliteke formula bien arteko lotura-bideren bat posible izatea.

V.2.3. Berehala aplikatu behar dira berrikuntzak, edo pausoz pauso? Bi irizpide:

- ✓ Aldaketak berehalakoa eta orokorra izan behar du. (5-10 urte)
- ✓ Pausoz pauso joan behar da. Talde pilotuen bidez esperimintatu beharra dago. (5-10 urte)

5- 10 urteko epea luzeegia dela dioenik bada: hiruzpalau urteko muga jartzen dute.



V.- Aurrera begira, zer? Adostasunak eta bide-banatzeak

V.2. Bide-banatzeak

V.2.4. Aldatzekotan, norantz? Hurrengo atalean emango da hobekuntza-bide horien berri (hipotesiak). Ez dago partaideen artean, hobekuntza bide horietako baten aldeko adostasunik.

V.2.5. Eskola aski al da, ikasle guztiak elebidun funtzional bihurtzeko? Bi jarrera:

- ✓ Beharrezko hobekuntzak egiten badira (adibidez, D eredua orokortu), helburu hori lor daiteke .
- ✓ Eskolaren eragin-ahalmena mugatua da eta, beraz, bere eragimen hutsez ezin lor liteke helburu hori.

V.2.6. Hizkuntza-eskubidea, norbanakoarena edo lurralde-irizpidearen araberakoa?

Bi jarrera:

- ✓ Eredua aukeratzeko eskubidea mantentzeak onura handia dakar: marko juridiko ziurra eta gizarte-adostasuna edukitzearen garrantzia.
- ✓ Elebitasun osoaren helburuak lortzea lehenetsi behar da. Eredu-aniztasuna, bestetik diskriminazioa areagotzeko bidea izan daiteke.



V.- Aurrera begira, zer? Adostasunak eta bide-banatzeak

V.2. Bide-banatzeak

V.2.7. Zabalkunde kuantitatiboa vs. hobekuntza kualitatiboa. Hurrengo atalean emango da hobekuntza-bide horien berri (hipotesiak). Ez dago partaideen artean, hobekuntza bide hauekiko adostasunik.

- **V.2.8. Zer leku dagokie atzerri-hizkuntzei oro har, eta ingelesari bereziki, etorkizuneko eskolan?**
 - ✓ Anglo-baikorrak
 - ✓ Anglo-eszeptikoak



VI.- Berriaz aztertu diren hobekuntza-bide alternatiboak

Lan-talde bakoitzak askatasun osoa izan du bere proposamenak adosteko orduan. Lan-talde operatiboak, berriz, hasieratik eskatu zuen alternatiba konkretuak jarri behar zitzaizkiola mahai gainean bere kalkuluak horien arabera egin ahal izateko. Beraz, honako lau hipotesi hauek prestatu ziren :

VI.1. Lehen alternatiba: Indarrean dagoen eredu-sistema mantendu, ereduak (bai A, bai B eta bai D) hobetuz eta garatuz. Hona hemen hobekuntza bide honen osaera nagusia:

- ✓ A ereduari, beste gai bat emango da euskaraz (euskara-gaiak gain).
- ✓ DBHn ere B ereduak ezarriko da.
- ✓ Une jakin batetik aurrera (4 urterekin edo LMH hasieran), ingelesez asignatura bat eman daiteke.

VI.2. Bigarren alternatiba: Oraingo D ereduak (edo antzekoa) ikasle, ikastetxe eta ikasmaila guztietara orokortzea. Gurasoek eta tutoreek ez dute seme-alabentzako eskola-hizkuntza aukeratu ahal izango. Estatu edo gizarte elebakar batean bezalako eskola-sistema bateratua, denentzat berdina, eratzea dakar horrek.



VI.- Berriaz aztertu diren hobekuntza-bide alternatiboak

VI.3. Hirugarren alternatiba: Anglo-B

- Ikasbide-hizkuntzak euskara, gaztelania eta ingelesa izango dira, Haur Hezkuntzatik DBHO amaitu arte.
- Portzentaje aukera ezberdinak. Adibidez:
 - a.- Euskaraz %50, gaztelaniaz % 25, ingelesez %25
 - b.- Euskaraz %33, gaztelaniaz % 33, ingelesez %33
- Hezkuntza-administrazioak definituko ditu hiru hizkuntzetan lortu beharreko hizkuntza-gaitasunak (LMH amaieran eta DBH amaieran).
- Gurasoek seme-alaben eskola-hizkuntza aukeratzeko eskubidea galduko dute.



VI.- Berriaz aztertu diren hobekuntza-bide alternatiboak

VI.4. *Laugarren alternatiba.* Eredu bakar baina malgua: ikastetxe bakoitzaren esku utziko da eredu propioa egituratzea. Gizarte-beharrak zehaztea

- Eskola bakoitzak zehaztuko du bere hizkuntza-proiektuan, bi hizkuntza ofizialei (eta atzerri-hizkuntzari) emango zaien lekua eta esparrua.
- Hezkuntza Sailak oinarrizko jarraipena eta kontrola egingo du.
- Jarraipena eta kontrola nola egingo den ez dago argi zehaztua: ikastetxe bakoitzak bere etxekoa, edo Hezkuntza Sailak kanpo ebaluazioz egingo?
- Ikasgaiak, ordutegiak eta antolaketak erabakitzeko, malgutasunez jokatu da ikastetxe bakoitzean.
- Gurasoek ez dute beren seme-alaben ikasbideen hizkuntza aukeratzeko eskubiderik, orain arte egin izan den bezala. Eskola Kontseiluaren bidez bai, halere.

Hipotesi horiek landu dira lan-talde operatiboan eta juridikoan. Hona hemen emaitzak:



VII.- Hobekuntza-bide alternatiboen bideragarritasuna

Bideragarritasunaren auzia bi txostenek landu dute bereziki: lan-talde **operatiboak** eta lan-talde **juridikoak**.

VII.1. Bideragarritasun operatiboa

▪ *VII.1.1. Lehen alternatibaren bideragarritasun operatiboa:*

- ✓ Kostu ekonomiko txikia eskola-sare publikoan.
- ✓ Eskola-sare pribatuan ez dago aparteko zailtasunik kostu ekonomikoari dagokionez.
- ✓ Kontuan hartu behar diren puntu batzuk:
 - ✓ Euskaraz emango den irakasgaia zein den zehaztu behar da.
 - ✓ Gutxienez 3 ordu astean.
 - ✓ Administrazioak ala ikastetxeak aukeratuko du zein irakasgai?
 - ✓ Gaez edo urrutiko hezkuntzan ere aplikatuko da?



VII.- Hobekuntza-bide alternatiboen bideragarritasuna

- ***VII.1.2. Bigarren alternatibaren bideragarritasun operatiboa:***
 - ✓ **Desoreka giza baliabideetan:**
 - ✓ Euskaraz dakien irakasle gehiagoren beharra izango du sistemak, eta
 - ✓ Euskaraz ez dakien hainbat irakasle klase emateko aukerarik gabe geldituko da.
 - ✓ **Konponbidea:**
 - ✓ Kontratazio berrietan irakasle euskaldunak.
 - ✓ IRALE bidez lanean ari diren irakasle erdaldunak euskalduntzea.



VII.- Hobekuntza-bide alternatiboen bideragarritasuna

- **VII.1.3. Hirugarren alternatibaren bideragarritasun operatiboa:**

- **Desoreka giza baliabideetan:**
 - ✓ Irakasle-soberakinak sortuko dira.
 - ✓ Irakasle gehiagoren premia sortuko da.

- **Bestelako kontsiderazioak:**
 - ✓ “ANGLOIRALE” moduko zerbait sortu behar ote den aztertzea komeni da.
 - ✓ Zer egingo da A eta B ereduetakoko ikasleekin, baldin eta maila errepikatu eta D ereduan sartu behar dutela ikusten bada?
 - ✓ Ikasle etorkinen kopuruaren gorakada posiblearen aurrean, kolektibo hori eskolatzeko proposamenak birplanteatu behar dira (euskararen gutxienezko ezagutza ez dute izango).



VII.- Hobekuntza-bide alternatiboen bideragarritasuna

- ***VII.1.4. Laugarren alternatibaren bideragarritasun operatiboa:***
 - ✓ Kostu ekonomikoa zenbatzea ezinezkoa da (ikastetxe bakoitzaren arabera da)
 - ✓ Hipotesi hau bideragarriagoa da itunpeko ikastetxe pribatuetan, hauen autonomia-maila dela medio.
 - ✓ Hipotesi honen kudeaketa ikastetxe publikoetan nekeza izan daiteke Hezkuntza Sailarentzat.
 - ✓ Ikastetxe bakoitzean hizkuntza-eredua aukeratzeko prozedura garatu beharko litzateke. Erabakian eragile batzuek eta besteek parte hartu beharko lukete: irakasleek, familiek, udalak, Hezkuntza Sailak.
 - ✓ Euskal Eskola Publikoari buruzko legeak autonomia ematen die ikastetxeei hizkuntza-eredu bat esleitzeko eta hizkuntza-ereduak proposatzeko.
 - ✓ Beharrezkoa da (eta presazkoa) irakasmaita bakoitzean hizkuntza eredu bakoitzean lortu behar diren gutxienezko helburuak zehaztea. Horrela, eskumena duen agintaritzak kanpoko ebaluazio objektiboaren bidez jakin ahal izango du ikastetxeak aurkeztutako eskaria onartu daitekeen ala ez.



VII.- Hobekuntza-bide alternatiboen bideragarritasuna

VII.2. Bideragarritasun juridikoa

Bideragarritasun **juridikoa** aztertzeko honako bi galdera hauek egin zaizkio lan-talde juridikoari:

- Zer neurritan da hipotesi alternatibo horietako bakoitza egingarri egungo egunean indarrean dugun lege-markoan?
- Hipotesi alternatibo bakoitzak zer mailatako lege-aldaketa eskatuko luke, aurrera eraman ahal izateko?



VII.- Hobekuntza-bide alternatiboen bideragarritasuna

■ ***VII.2.1. Lehen alternatibaren bideragarritasun juridikoa:***

- ✓ Lege, dekretu edo agindu aldetik ezertxo ere aldatu gabe.
- ✓ Uztailaren 11ko 138/1983 dekretua aldatuz.

Beraz, lehen hobekuntza-bidea juridikoki bideragarria da.

■ ***VII.2.2. Bigarren alternatibaren bideragarritasun juridikoa:***

- ✓ Euskararen Erabilera Normaltzeko 10/1982 Legea eta Euskal Eskola Publikoaren 1/1993 Legea aldatu egin beharko lirateke.
- ✓ Lan-talde juridikoaren iritziz, Konstituzioak eta Autonomia Estatutuak markatzen duten lege-marko nagusian zail xamarra ikusten da bideragarritasuna, oraingoz. (...”Beraz, jurisprudentzia hori kontuan hartuta, ez litzateke bideragarria izango D ikasteredua lurralde, ikaskuntza-maila eta sare guztietan orokortzea, gaztelaniak hezkuntzako irakas-hizkuntza izateari utziko lioke-eta.”)



VII.- Hobekuntza-bide alternatiboen bideragarritasuna

- **VII.2.3. Hirugarren alternatibaren bideragarritasun juridikoa:**
 - ✓ Honako hiru motibo hauek direla medio, hirugarren hipotesia ere zail xamarra ikusten da lan-talde juridikoaren esanean:
 - ✓ gurasoei (edo tutoreei) ez die askatasunik ematen, seme-alaben ikasbide-hizkuntza aukeratzeko.
 - ✓ ahaztu egiten da hizkuntza ofizial bi direla EAEn, ez hiru.
 - ✓ Ez da segurua formula horrek Espainiak Europan onartuak dituen konpromisoak beteko lituzkeen.

- **VII.2.4. Laugarren alternatibaren bideragarritasun juridikoa:**
 - ✓ Edozein eratako “laugarren alternatiba” zail xamarra ikusten da, lan-taldeari ongi ulertzen bazaio. Horra bere azalpena:

“Hasieratik esan beharra dago hipotesi hori ezartzeak berekin ekarriko lukeela ikastetxe guztiak errespetatu beharko luketen lege-marko berria ezartzea. Hala ere, hori horrela izanda ere, sistema edo eredu berri horrek ezingo luke Gernikako Estatutuaren 6.2. artikuluan ezarritakoaren aurka egin. Hain zuzen, artikulua horren arabera, Autonomia Erkidego osorako erakundeei (Legebiltzarra eta Eusko Jaurlaritza) dagokie bi hizkuntza ofizialen erabilera bermatzea, ofizialtasuna arautzea, eta bien ezagutza ziurtatzeko behar diren neurri eta baliabideak bideratzea eta arautzea. Bestetik, egungo legediak ikastetxeen pedagogia-autonomia onartzen badu ere, autonomia hori, praktikan, ez da ikastetxeek hizkuntza-eskaintza arautzeko eta kontrolatzeko behar adinakoa, eskumen hori, aipatu bezala, autonomia-erkidego osorako erakundeei dagokie-eta”.



VII.- Hobekuntza-bide alternatiboen bideragarritasuna

Laburbilduz, ikusitako irizpideak kontuan hartuz, alternatiba guztiak ez dira bideragarri neurri berean:

- ✓ Lehen hipotesia bideragarriena da. Legez errez eraman daiteke aurrera eta baliabideen aldetik arazo gutxi planteatzen du.
- ✓ Ondoren, bigarren, hirugarren eta laugarren aukeren bideragarritasuna sakonago aztertu beharko litzateke.



VII.- Hobekuntza-bide alternatiboen bideragarritasuna

Bestelako irizpideak:

- 1.- **BIDERAGARRITASUN JURIDIKOA:** Lege barruan al dago? Ez badago, zer lege aldatu behar da?
- 2.- **BIDERAGARRITASUN FINALISTA:** Oinarrizko komunikazio-gaitasunaren helburua zer neurritan garantizatzen du (beti ere gizarte-baldintzaren arabera).
- 3.- **BIDERAGARRITASUN OPERATIBOA** administrazioaren aldetik: Operatiboa al da bere gestioa, aplikagarria al da eta zein neurritan?
- 4.- **BIDERAGARRITASUN OPERATIBOA,** ikastetxeen aldetik: Lekuan lekuko bideragarritasuna. Ikastetxeentzat eta ikastetxeko zuzendarientzat noraino da aplikagarria?
- 5.- **EBALUAGARRIA** eta hobetzeko ahalmendun al da?
- 6.- **Gurasoen HAUTAPEN-ESKUBIDEA** zer neurritan ahalbidetzen du?
- 7.- **ATZERRI-HIZKUNTZETARAKO** (besteak beste, ingeleserako) aukera zabalik uzten al du?
- 8.- **GARAPEN KOGNITIBOA** segurtatzeko egokia al da?
- 9.- **BATERAGARRITASUNA,** zonalde soziolinguistikoaren irizpidearekin.
- 10.- **BATERAGARRITASUNA,** ama-hizkuntzaren irizpidearekin.



VIII.- Proposamen baterako aurrebaldintzak

Kontuan hartu beharreko iradokizunak prestatu ditu koordinazio-batzordeak.

Hona hemen:

- VIII.1. Gaiaren dimentsio politiko-instituzionala ez da inoiz ahanztea komeni.** Arazoa ezin da bakarrik konpondu irizpide tekniko hutsen argitan.
- VIII.2. Adostasun zabala behar du formula berriak, gizarte-bizitzan.** Proiektu berriak oraingo markoak izan zuen onarpen-maila sozial eta instituzional bera behar luke.



VIII.- Koordinazio-batzordearen zenbait gomendio

VIII.3. Bideragarritasun argia behar du formula berriak. Egitasmo berriak “hemen eta orain bideragarria” izan behar du. Bideragarritasun horri begira, honako lau irizpide hauek nabarmentzen dira:

- Bideragarritasun **finalista**: Ikasle orok, derrigorrezko eskola-aldia amaitzerakoan, oinarrizko komunikazio-gaitasun funtzionala zer neurritan eskuratu ahal izango duen aztertu behar da. Kontuan hartu behar da, soziolinguistikak erakusten duenez, ikasle guztiek ezin dutela gaitasun-maila berbera eskuratu 16 urtera iristean.
- Bideragarritasun **operatiboa**: dauden baliabideekin bateragarria izan behar du egitasmoak.
- Bideragarritasun **juridiko** sendoa: legezkotasun-azterketa gainditzeko gai izan behar du. Gainera, gurasoen erabakimena oso kontuan hartu beharko litzateke, nahiz eta absolutu bat ez izan.
- Bideragarritasun **soziologikoa**: gurasoen **borondateak** garrantzia du irakasteredua diseinatzeko orduan. Motibazioa eta jarrera ere esparru horrekin harremanetan daude: gurasoen eta inguruaren motibazioak eragin handia du eredu batean lortutako emaitzetan.



IX. Hobekuntza-proposamenak

IX.1. Lege aldetiko zalantza nagusiak lehenbailehen argitzea komeni da. Bi eratako dudak daude:

IX.1.1. Zer da “hizkuntza ofiziala”? Zer ondorio du, EAEn, euskararen eta gaztelaniaren ofizial izate horrek? Argitasun juridikoa falta baldin bada, eta badago hori uste izateko motiborik, komeni da gauzak argitzea berrikuntza egin aurretik, eta ez horren ondoren.

IX.1.2. Lehen eta laugarren hobekuntza-bide alternatiboen legezkotasun-maila zehaztea. Bigarren eta hirugarren alternatiben kasuan, argi dago hipotesi horiek zailagoak ikusten direla egungo lege markoan.

IX.2. Euskarazko irakaskuntzaren garapena. Zabalkunde kuantitatiboa oraindik ez da amaitu. Gainera, euskarazko ereduetan ere euskara guztiz finkatu gabe dago kasu batzuetan. Metodologia, normalkuntzan eskolaz kanpoko ekintzetan... aurrerapausoak eman beharra dago.

IX.2.1. Haur Hezkuntzan euskara luze-zabal landu behar da.

IX.2.2. DBHOn euskarazko irakaskuntza zabaltzea. DBHOn eta, batez ere Lanbide Heziketan euskal erduek ezartze-maila eskasagoa dute. Gabezia horiek kontuan hartu eta aurrerapausoak emateko garaia da.



IX. Hobekuntza-proposamenak

IX.3. Gela barruko jardunbidea. Ereduak aldatu edo ez, emaitzen arrakasta edo porrota ikasgelan dago neurri ohargarrian. Hori ezin da ahaztu. Ereduei ezin zaie, berena ez den errua egotzi. Emaitzak hobetu nahi badira, hortaz, gela barruko jardunbidea hobetu behar da, besteak beste. Zer egin liteke gure eskoletan, ohiko klaseetan, hizkuntzen (batez ere euskararen) ezagutza-maila hobetzeko, Legebiltzarrak agindu duen eran?

IX.3.1. Ikuspegi orokorra. Irakasteko tresna bihurtu behar da euskara. Euskarak irakasgai hutsa izateari utzi eta eduki-transmisore izan behar luke ikastetxe guztietan.

IX.3.2. Hizkuntzak ongi irakatsi behar dira.

- ✓ Euskararen irakaskuntza. Irakasle guztiak dira, era batera edo bestera, euskara-irakasle.
- ✓ Gaztelaniaren irakaskuntza. Gaztelaniaren erabilera bizia kalean eskuratzen bada ere, eskolak hizkuntzaren erregistro formalak eskuratzen ere lagundu behar du.
- ✓ Exentzio- edo salbuespen bidea. EAEko irakas-sistemara etorri berriak diren ikasleei hezkuntza-administrazioak ezarritako epe mugatuan eta irizpide argien arabera, exentzioa emango zaie. Gainerako kasu guztietan curriculum-egokitzapenaren bidea hobetsiko da.



IX. Hobekuntza-proposamenak

- IX.3.3. Ele anitzeko hezkuntza berariaz landu behar da.** Gure Erkidegoan ofizial diren bi hizkuntzek duten lehentasuna ahanzi gabe, posible da kasu batzuetan zenbait gai ingelesaren bidez ikastea. Hala ere, eskolaren ardatz nagusietako bat izaten jarraitu behar du euskarak.
- IX.3.4. Eskola bakoitzak bere hizkuntza-proiektua egin eta aplikatu behar du.** Ereduak ezin dira egitura zurrinak izan, dinamikoak eta malguak baizik. Eskola-komunitatean hizkuntzen presentzia eta erabilera nolakoak diren diagnostikatu ondoren, hizkuntza-proiektu propioa garatu behar luke ikastetxeak eta erabaki beharko luke hizkuntza bakoitzaren presentzia gela barruan zein kanpoan, hizkuntza bakoitzaren garrantzia ikastetxearen antolamenduan, harremanetan, normalkuntza planak, etab.
- IX.4. Erreferentziazko hizkuntza-mailak finkatzea.** Ikasle guztien hizkuntza-ibilbidea ezin da berdin-berdina izan denentzat, abiapuntua ikasle bakoitzarentzat desberdina bada, helmuga ere ezin erabat berdina izan. Denek ez dute eskola-aldiaren bukaeran gaitasun berdina eskuratuko, bai ordea, gutxienezko bera.



IX. Hobekuntza-proposamenak

IX.5. Irakasleen prestakuntza-maila hobetu egin behar da. Irakasleen eta langile ez-irakasleen hizkuntza-maila jasotzeko ahaleginak areagotu behar dira.

Hiru eratara komeni da irakasleen prestakuntza maila hobetzea:

IX.5.1. euskara-maila hobetuz

IX.5.2. hobekuntza metodologikoa eskuratuz

IX. 5.3. kultura-edukien hobekuntza sustatuz



IX. Hobekuntza-proposamenak

IX.6. Baliabideak eskuratzea Diru-bideak, giza baliabideak, antolamendu-neurriak eta baliabide materialak beharrezkoak dira. Giza baliabideak eta baliabide materialak banan-banan azalduko dira jarraian:

IX.6.1. Irakasle eta langile elebidunak behar dira. Gauden fasean egonik, salbuespenak salbu, ez da justifikagarria eskolara sartzen diren irakasle eta langile gazteenek euskarazko prestakuntzarik ez izatea.

IX.6.2. Ikasmaterialek egokiak behar dira. Irakasleen lana kalitatezkoa izan dadin, aparteko garrantzia dute ikasmaterialek. Esparru horrek ere berariazko laguntza behar du, irakasmundua herren geratuko ez bada.

IX.7. Hezkuntza eta gizartea. Hezkuntza eta gizartea ezin dira alde banatatik ibili. **Hizkuntza-normalkuntza** lortu eta **aniztasun linguistiko- kulturala** babestu beharra dago.

IX. 8. Ele biko hezkuntzari buruzko ikerketa indartu egin behar da. Gure gizarteak bizi duen hizkuntza-egoera berezia da. Honek hausnarketarako eta ikerketarako bideak zabaltzea eskatzen du:

- Hizkuntzen irakaste-jabetze-eta ikaste-prozesuen inguruko ikerkuntza sustatu beharko du Unibertsitateak.
- Ele biko irakaskuntzaren eta hizkuntza-normalkuntzaren arteko loturak aztertu behar dira.



IX. Hobekuntza-proposamenak

IX.9. Hurrengo pausuak nola?

IX.9.1. Indarrean dagoen eredu-markotik abiatzea komeni da, oraingoz. Urrats berriak eman behar dira, baina orain arte egindakoa birrindu gabe.

IX.9.2. Hiru ereduak mantenduz, gutxienezko presentzia segurtatu behar zaie euskarari eta gaztelaniari:

- a) Hizkuntza ofizialak, ikasgai.
- b) Hizkuntza ofizialak, ikasbide.

IX.9.3. Beharrezkoa eta egokia bada, ereduaren markoa eguneratu edo aldatu egin liteke. Horretarako, lau baldintza:

- ✓ Marko berria legezkoa izatea.
- ✓ Baliabide aldetik bideragarri izatea.
- ✓ Formulazio berriak oraingo sistemak baino emaitza hobeak eman behar ditu. Hau enpirikoki frogatu ahal izango da.
- ✓ Gizarte onarpen zabala.



IX. Hobekuntza-proposamenak

IX.9. Saiakuntza-bidea indartu egin behar da, hasieratik beretik

- Sistemak ezarri nahi diren berrikuntzak saiakuntza-bidez aztertu behar dira: aldaketak pertsona askorengan eragina izango duela jakinik, ezin gara itsu-itsuan sartu berritze-bidean barrena.
- Jabetza mota diferenteko eta egoera desberdinetatik abiatzen diren ikastetxeez osatutako **talde pilotua** osa liteke. Ikastetxe horiek **ohiz kanpoko bitartekoak** izango lituzkete. Esperientzia hori **zabalduz** joango litzateke, eta emaitzak konprobatu ondoan, sistema osora zabalduko litzateke.



Aurrekariak

- Azterketa operatiboa plangintza bat inplementatu aurretik zein inplementatu ondoren egin daiteke. Kasu bietan lagungarri.
- Azterketa operatiboa eta legea harreman dialektikoan daude.
- Hizkuntzaren ikuspegi ekonomikoak hiru erabilera ditu:
 - Erabilera sustantiboa, hizkuntzaren bizindarrarengan erabakigarriak diren harremanak azaltzeko.
 - Erabilera metodologikoa, instrumentu kontzeptual partikularren erabilera egokian oinarrituz, aukera ezberdinen arteko konparazio sistematikoak egiteko. “To use an example quoted during the meeting, it is the joint use of the concepts of marginal cost and counterfactual that enable us to show that moving from an unilingual to a bilingual education system in the CAV carries a modest cost (below 3% per year) ” (5. o.)
 - Erabilera erretorikoa, argumentazio bideak irekitzeko.



(François Grin)

EAEko hezkuntza ereduen aplikazioa

- Egungo egoera soziolinguistikoak eta testuinguru politikoak ezartzen dute azterketa operatiborako ezinbestekoa den oinarria.
- Azterketak egun daukagun egoera (*Ist-Zustand*) eta helmugan ikusten dugun egoera (*Soll-Zustand*) erkatzea eskatzen du.
- Ondoren beharrezkoak diren bitartekoak identifikatu beharko lirateke. Talde operatibokoek baliabide pertsonalen (irakasleen) kuantifikazioa soilik egin dute, hau garrantzitsuena izan arren, beste hainbat baliabide ere hor daude:
 - ✓ irakasleei begira: ikasleen ratioak, ordain sariak, neke/desgaste indizeak, irakastorduen kopurua, prestakuntza/berrikuntza deialdietan, matrikulazioa...
 - ✓ Hezkuntza operazioei begira: eredu-tako matrikulazioak, ereduka hizkuntza bakoitzeko orduak, hezkuntza-helburuetan oinarritutako aukerak, ikasmaterialen egokitasuna, hizkuntza ezberdinen arteko konpartimentazioa...
 - ✓ Beste aldagai batzuei begira: eskolaz kanpoko ekintzen aukera eta horien eragina hizkuntzaren jabekuntzan.
- Aspektu kurrikularrak: lortu beharreko helburuak mailakatu, epeka monitorizatu eta ebaluatu.
- Finantziario aurreikuspenak egin eta antolamendu arazoak aurreikusi.



Josiane F. Hamers

Psikolinguistika eta elebitasuna irakasle (Québec, Kanada)

Gomendioak

1. Euskarak izan behar du irakasteko baliabide nagusia egoera guztietan.
2. Eredurik sendoenak (B eta D) hobetu egin behar dira: *“Because of the strength and the prestige of the Spanish language in the community, no program should contain less than 50% of the Basque language as a language of education (more likely 75% or even more).”* (3. o.)
3. Eredu elebidunak hezkuntza-komunitatean eta inguru hurbilean egiten den hizkuntzen erabilera kontuan hartu behar du.
4. Gaztelaniak ez du irakasgai soila izan behar, irakasbide ere bihurtu behar du.
5. Ereduen etengabeko ebaluazioa: hizkuntz gaitasuna, matematika eta zientzietako emaitzak eta elebitasunari loturiko onurak (froga analitikoak, pentsamendu dibergentea...)
6. Eskolaurrean euskara erabili behar da nagusiki, Lehen Hezkuntzara joatean irakurketa-idazketa euskaraz garatzeko gai izan daitezen.
7. Eskolaz kanpo ere euskararen erabilera sustatu behar da ezinbestean.
8. Irakasleek zein eskolako beste langile ez-irakasleek elebidunak izan behar dute.



9. Hizkuntzen irakaskuntzarako metodologiak L1en instrukzio bidez egitea komeni da. Curriculumean hizkuntza erabiltzea funtzionamendu kognitiboaren tresna bihurtuz.
10. Bi hizkuntza ofizialetan gaitasun funtzionala da lehentasuna. Hori bermatuta dagoenean hirugarren hizkuntza sar liteke. “At no time should the introduction of a foreign language be done at the cost of the Basque-Spanish bilinguality ”. (4. o.)
11. Garrantzitsua da irakasleek metodologiari eta elebitasunari buruz prestakuntza izatea eta etengabe osatzen joatea.
12. Gurasoen borondatea beti hartu behar da aintzat; komeni da haiei elebitasunari eta jomugei buruz informazio zehatza eta argia ematea.
13. Derrigorrezko eskolaldia bukatu ondoren ere, ikasleek euskaraz ikasteko aukera izan beharko lukete.
14. Etorकिनен kasuan ezberdin jokatu behar den arren, bi hizkuntza ofizialak bereganatu behar dituzte euskal eskola sisteman integratzeko. Alfabetatze mailara iristea lehenetsi behar da ume umetatik, eta ahal den gehienetan beraien etxeko hizkuntza baloratuz eta baloraraziz.



Ignasi Vila

Gomendioak

1. Euskal hezkuntza-sistemaren ikasbide-hizkuntza euskara dela adierazi beharko litzateke.
2. Baieztapen honek ez lieke gaztelera eta atzerriko hizkuntzaren ezagutzei kalterik egin behar.
3. Aurreko baieztapena osatu behar da gurasoek euren seme-alaben ikasbide hizkuntza aukeratzeko (euskara zein gaztelera) duten eskubidearekin.
4. LHko 3. mailatik aurrera, eskolako ekintzen hizkuntza, gutxienez % 50ean euskaraz izan beharko luke.
5. Arestiko gomendioek egungo bi egoera berresten dituzte: B eta D ereduak.



(Ignasi Vila) Gomendioak

6. Administrazioaren laguntzarekin ikastetxe bakoitzak bere hizkuntza-proiektua sortu beharko luke. Horretarako honakoak hartu behar dira kontuan: ikasleen lorpenak, bertako hezkuntza-komunitatea, familien joerak, eskualdeko egoera soziolingüistikoa eta irakasleen hizkuntza-gaitasunen diagnosien emaitzak.
7. Ahaleginak egin behar dira etorkin guztiak, haur zein nerabe, D ereduan matrikula daitezen. (Québec-eko 101 Lege moduko bat sortuz edota administrazio eta eskolarizazio-komisioek horren aldeko kontzientzia argia izanez).
8. Ikastetxeek giza baliabide bereziak, klaustroan finko diren irakasleak behar dituzte ume etorkinen eskolako hizkuntzaren jabeakuntza ziurtatzeko. Baliabide horien bidez ez dira “gela itxiak” sortu behar, hizkuntzaren ikaskuntza “gela arruntetan” egindako ikasketekin konbinatu behar baita, batez ere berdinen arteko elkarreragina, gizartean “hizkuntza ahula” den euskararen alde delako.
9. Administrazioak sari edo laguntza bereziak eskaini beharko lituzke ikasle ororen euskalduntzea helburu duten hizkuntz esperientziak babesteko.



Euskal hezkuntza sistema elebiduna eredugarria da hainbat alderditatik:

- Eredugarri da euskal hezkuntza eredian kontsentsua iristeko ahalegina: elebitasunak eragiten dituen beldurrak eta tentsioak gainditzeko gai izan da.
- Horretan, erabakigarri izan da eredu bakarra ez inposatu izana: hiru ereduek gizartearen hizkuntza-ezaugarriak eta gurasoen borondatea aintzat hartu dituzte.
- Elebitasun eredurik arrakastatsuenak promozionatzeko eginiko gizarte- eta hezkuntza-mailako lana ere zaindua eta aipagarria da.

Gomendioak A eredia aldatzeari buruz:

- LHn euskararen erabilera zabaltzen joan daiteke curriculumean, Bigarren Hezkuntzan B eredian sartzeko gai izango diren eran: Luxemburgetako eredia.
- Bigarren Hezkuntzan, euskara irakasgaiaz gain, bizpahiru irakasgai eman osoki euskaraz, B izatera iritsi gabe eta gaztelaniazko trebetasunen garapena oztopatu gabe. Horrelakoa da Alemaniko eredu elebidun aldakorra: Bigarren Hezkuntzan, hizkuntzaz gaineko bi irakasgai L2n irakasten dituzte bi urtez gehienez, eta gero aldatu egiten dituzte irakasgaiak.



Arlo glotodidaktikoa: Kezkak eta gomendioak.

- Euskal Autonomia ia eskualde elebidun bakarra da hirugarren hizkuntza Haur Hezkuntzatik sartzen.
- Ez dago argi justifikaturik zergatik hala jokatu: hirugarren hizkuntza hain umetan hasteak ez dakar abantaila nabarmenik, geroago, ikasleak elebidun direnean hasita, oso onak baitira emaitzak.
- Inteligenteago litzateke euskara lehen adin horretan ongi irakatsi eta erabilera finkatzea eta L3aren sarrera atzeratzea: Luxemburgen 7 urte eta erdirekin hasten dira, beste herrialde askotan LH bukaeran edo DBH hasieran, eta arrakastaz osoz.
- Ondorioz, azaldu egin behar da Anglo-B hipotesia zertarako den, argi baitago B eredua ahulduko duela euskararen gaitasun-mailari dagokionez.



- **Proposamenak maila soziolinguistikoan:**
 1. Elebitasun prozesuak luzeak dira beti eta ez da ona arau aldaketa bizkorrez suspertu nahi izatea, hobe epe ertainerako eragiketak abiaraztea.
 2. Euskararen ezagutza- eta erabilera-mailen arteko aldea ez da hezkuntza arloko auzia, gizarte mailakoa baizik, hizkuntz politikaren esparru osoari dagokio.
 3. Hizkuntza politika gobernu osoaren ardura da eta ez Hezkuntza edo Kultura Sailarena soilik: Irlandaren kasuak argi erakusten du porrota dakarrela eta Singapur, aldiz, eredugarri da: Gobernu osoaren zeregintzat hartu dute.
 4. Gizarte osoak egin behar du elebitasunaren alde eta hemen ez da hainbat esparru publiko eta pribatuko eragileez ezer esaten: osasuna, enpresak, e.a.
 5. Prozesua ebaluatu: guztiz garrantzizkoa da hezkuntza arloko emaitzak eta azterketak (*outcome levels, assessment criteria and examinations*) zehaztea, horrela bakarrik neurtuko da bilakaera, pertzepzio subjektiboak gaindituz.
 6. Europako Kontseiluaren *Common European Frame of Reference* eta *European Language Portfolio* hartu behar dira horretarako erreferentetzat.



(Antoni Milian i Massana)

- **B EREDUA**

- etorkizuneko dekretuak euskaraz irakatsi behar diren ikasgaiak eta gazteleraz irakatsi beharrekoak birbana ditzake, edota bi hizkuntzetako baten erabilera lehenetsi —euskara, adibidez, hizkuntzaren ezagutzamaila hobetzeko—, kontuan izanik 10. xedapen gehigarriak ez duela ezartzen bi hizkuntzak hein berean erabili behar direnik. Bestalde, dekretuak mailakapen bat ezar lezake, hasieran euskara eta gaztelera hein berean erabiltzen hasi eta pixkanaka euskararen irakaskuntza zuhurki areagotuz.
- dekretu berriak B eredia batxilergora —138/1983 Dekretua ez zen maila horretara iritsi — eta egun eredia aurreikusteke dagoen unibertsitatez kanpoko beste ikasketetara heda lezake eta hedatu beharko luke. Ez da aukera bat, 10. xedapen gehigarriaren exigentzia baizik, hain zuzen ere honela hasten dena: “*Hizkuntz ereduak...*”

- **D EREDUA**

- Arau juridikoarekin guztiz bat dator beste ereduaren existentziaren testuinguruan, baina eredu hau orokortzeko beharrezkoa izango litzateke legea aldatzea.



(Antoni Milian i Massana)

ATZERRIKO HIZKUNTZA IRAKASTE-HIZKUNTZA GISA TXERTATZEA

- 10. xedapen gehigarriaren edukia errespetatu behar da bi hizkuntza ofizialek irakaste-hizkuntza gisa duten rolari dagokionez.
- noizean behin edo tarteka atzerriko hizkuntza irakaskuntzan gai edo jardueraren batean, hizkuntza horren jarraipen bezala (*continuum* gisa) edo modu esperimentalean, erabiltzea xedatuko lukeen arau bat baliogabetzeko arrazoirik ez legoke.
- hizkuntza moderno edo atzerrikoaren erabilera ohiko eta sistematikoko bat modu arautu eta orokortuan xedatuko lukeen arau bat, berriz, baliogabetzeko modukoa litzateke, 10. xedapen gehigarrian irmoki ezarrita dagoenaren aurka doalako.
- ZEHAZPENAK
- Dekretuak hala nahi duten ikasleak eredu batetik bestera iragaitea arautu behar du.
- Etorkizuneko dekretu batek euskararen salbuespenen auziari heldu beharko lioke.



(Antoni Milian i Massana)

Aldaketarako aukerak Eusko Legebiltzarraren Lege baten bidez

- Azkenean indarrean dagoen eskolako hizkuntz sistema bazter uztea ekarriko duten aldaketak egin nahi badira, beharrezkoa izango da Legea bera aldatzea.
- Botere Legegileak lehen atalean adierazitako mugari –“Jatorrian Euskal Herriaz kanpotik datozen mugak eta baldintzak”– men egingo dio; bistakoa denez, haren hautatzeko ahalmena gobernuarena baino handiagoa da, baina beti ere han azaldutako esparru juridikoaren mugen barruan.
- Eskolako hizkuntz sistema aldatzeko ez da ezinbestekoa Euskal Eskola Publikoari buruzko Legearen (EEPL) 12. artikulua eta Hezkuntzako Lege Nazionalaren (LNE) 15. artikuluko lehen paragrafoa indargabetzea; nahikoa da 10. xedapen gehigarria *aldatzea*, nahi dena ereduaren sistema mantenduz dekretuari errekurtsioa jarrita egin litezkeenez haratagoko erreformak txertatzea bada.
- Aldiz, nahi dena ereduaren sistema ezabatu eta hura erabat edo hein batean ezberdina den beste batez ordezkatzeko bada, EEPLko 10. xedapen gehigarria eta, beharrezko izanez gero, harekin bat datozen hizkuntz ereduari buruzko gainerako arauak (LNEren 16.2 artikulua barne) *indargabetu* hutsarekin bidea erraztuko litzateke.



HPSren EKARPENA

Hogeiabost urteko bilakaeraren ondorioak

- Euskal gizarteak hautu garbia egin du euskarazko ikastereduen alde.
- Hezkuntza administrazioak aurrerabide handiak egin ditu giza baliabide, materialgintza- baliabide eta beste hainbat esparrutan gizarteko eskaerari erantzuteko.
- Irakasleek aparteko ahalegina eta konpromisoa hartu dute euskarazko irakaskuntza bermatze aldera.
- Eskolak euskaldundu du, euskalduntzen dihardu eta euskalduntzen jarraituko du.



(HPS)

Ibilbidearen balorazioa eta etorkizunerako kontuan hartu beharrekoak

- HPSk oso balorazio positiboa egiten du hizkuntza-ereduen sistemaren garapenaz.
- Haren ondorioz, egoera soziolingüistikoa aldatu egin da: euskal hiztunen kopurua nabarmen handitu da, belaunaldi gazteak bihurtu dira elebidun eta horietatik erdiak ama hizkuntza gaztelera dute.

Puntu kritikoak

- Eskolak ezin du berak bakarrik gizartea erabat euskaldundu.
- Erabilera sozialak bakarrik sendotu dezake eskolak eskainitako ezagupena. Etxe-auzo-bizigiro multzoaren laguntza ezinbestekoa du (Fishman, 1980).
- Ikasitako hizkuntza norbere bizitza pertsonalean eta sozialean itsasteko ahalegina da erabakigarria; bizi osorako konpromisoa. (Moreno Cabrera, 2006).
- Eskolak lanean jarraitu behar du, batez ere ikasleei euskararen erabilerarako esparru naturalak eskaintzen (Ulibarri programa).



(HPS)

Proposamenak aurrera begira

1. Auzia ez da ereduen sistema desagitea, ezta A eredia ezabatzea, hizkuntzak gizartean daukan presentziarekin dauka zuzeneko zerikusia korapilo honek.
2. Ereduek ez dira helburu, bitarteko tresna baizik; horregatik erduek malguak izan behar dute ikasleen beharrei egokitzeko.
3. Eskolak aro bakoitzean gutxieneko hizkuntz helburu zehatzak finkatu behar ditu, horretarako lagungarri izan ditzake Europako Erreferentzia Markoak emandako irizpideak.
4. Ikasleak euskalduntzea herritarren behar formatiboetako bati erantzutea da.
5. Irakaskuntzak aukera berdintasuna eskaini behar die herritar guztiei hizkuntzaren eskurapenean.
6. Horretarako, sistemak bitartekoak egokitu behar ditu: hizkuntz ereduak barne.
7. A eredian beste ikasgai bat edo batzuk euskaraz irakatsi. (138/83 Dekretua eta 1993ko EEP Legea garatuz)
8. Gurasoen borondatea eta ikastetxearen autonomia hezkuntza sistemaren oinarritzko zutabe.



(HPS)

Proposamenak aurrera begira

9. Ikastetxeak hurbileko hezkuntza komunitatearekin batera bere hizkuntza-proiektua garatu beharko du, eta honek inguruko euskara biziberritze egitasmoen parte izan beharko luke.
10. Gutxienezko helburuak etapaz etapa definitu eta ebaluaketa sistema egokiz baloratu.
11. Europako Erreferentzi Markoaren B2 maila DBH eta C1 maila DBHO eta Lanbide Heziketarako oinarrizko erreferentziazat har daitezke.
12. Helburu horietara 6 eta 8/10 urteko epean iristea aurreikusten da, eta bitartean esperientzi pilotuak sortu eta ereduaren egokitzapenak ebaluatu.
13. Ahal den heinean hirugarren hizkuntzari ere bidea zabaldu behar zaio: DBHn B1 eta DBHOn B2 lortzeari begira.
14. Gure bi hizkuntza ofizialen elebitasun orekatuak lehentasuna du.
15. Derrigorrezko eskolaldia amaitu ondoren ere eredu euskaldunak bermatu behar dira ikasleei euskarazko jarraipena ziurtatzeko.



(HPS)

Proposamenak aurrera begira

16. Irakasleria osoak elebiduna izan beharko luke.
17. Eskolako gelaz barne eta gelaz kanpoko jardunak euskaraz izan beharko luke.
18. Eskolak, ahal duen heinean, komunitateko partaideen hizkuntzarekiko atxikimendua eta konpromisoa landu beharko lituzke.
19. Eskola eta gizartearen arteko uztardura eta jarraipena sendotzeko eragileen arteko koordinazioa ezinbestekoa da. HPSk bere konpromiso osoa berresten du.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACION,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACION

EUSKADIKO ESKOLA KONTSEILUAREN PROPOSAMENA

Hizkuntza-ereduei buruzko Euskadiko Eskola Kontseiluaren akordioa



(Euskadiko Eskola Kontseilua) Sarrera

- Eredue berri bat berehala aztertu eta lehenbailehen praktikan jartzeko eskaera egiten dio Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari, irakaskuntzan indarrean dagoen ereduen sistemak euskara behar bezala ezagutzea bermatzen ez duelako.
- Kritikak egin zaizkio ereduen gaurko sistemari, bi aldetatik batez ere. Lehen, **ez dituelako nahi diren eta Legeak aurreikusten dituen hizkuntz helburuak lortzen**, eta bigarren, **kohesio sozial eta kulturalaren falta duelako**; izan ere, hizkuntz komunitate bereiziei eusten zaie, baina gizarte elebidun kohesionatu batean bizitzea dugu helburu.
- Lehen kritikarako argudioak dira berriki neurtu diren euskarazko **ikaskuntzaren emaitzak**, Europako Kontseiluko hizkuntzetako erreferentzi- markoaren arabekoak.
- Bestetik, gaurko sisteman antzemandako bigarren akatsari, **gizarte-kohesioari** dagokio; ereduen sistemak nahi ez den ondorio bat eragin baitu, ikasle etorkinak eta jatorri sozial, ekonomiko eta kultural ahulekoak. A ereduko geletan pilatzea, alegia. Ikasleak ereduen arabera sailkatzeak gizarte, ekonomi eta kultur ***Euskararen Erabilpena Normaltzeko Legea***, 1982koa, eta 1993ko ***Euskal Eskola Publikoaren Legea***.



(Euskadiko Eskola Kontseilua) Proposamenaren oinarria

- Gaur egun gure legeek ezartzen dutena (Euskararen Erabilpena Normaltzeko Legea, 1982koa, eta 1993ko Euskal Eskola Publikoaren Legea).
- Azaldutako *ebaluazioen emaitzek* baieztatzen dutena.



(Euskadiko Eskola Kontseilua)

Proposamena

- **Administrazioak zehaztu egin behar ditu DBH 4.eko ikasleek euskaraz izan beharreko gaitasunak ebaluatzeko erreferentzia-mailak:** gutxienezkoa eta gomendatutakoa. Halaber, Lehen Hezkuntzaren bukaerarako gutxienezko mailen erreferentziak zehaztu behar dira, baita Lehen Hezkuntzako eta DBHko ziklo bakoitzaren amaierakoak ere.
- **Proposamenaren ardatza euskara da.** Euskara irakasteko hizkuntza gisa erabiltzen ez duen, edo gutxi erabiltzen duen, eredu batek ez du proposatutako helburuak lortzeko balio.
- Ondorioz, **ADMINISTRAZIOAK ZEHAZTUKO DU IRAKASGAIK EUSKARAZ EMANGO DIREN ESKOLA-ORDUTEGIAREN GUTXIENEZKO EHUNEKOA ETA HAU BAKAR ETA MALGUA IZANGO DEN EREDU BERRIAREN OINARRIZKO ELEMENTU BAT DA.**
- **BAKARRA**, ikastetxe bakoitzak eredu bakarra eskainiko du, ikastetxearen eredia. Maila bereko ikasleak geletan taldekatzeko orduan, gela guztietan bilduko da ikastetxeak duen aniztasun guztia, behar diren irizpide pedagogikoen arabera.
- **MALGUA**, hiru alderditan:
 - ✓ **a) Irakasteko hizkuntza bakoitzari eskainitako denboren banaketan**, zonaldearen eta ikastetxearen egoera soziolingüistikoaren arabera eta, betiere, Administrazioak ezartzen dituen mugak errespetatuz.
 - ✓ **b) Egokitze eritmoetan, zehazten diren helburuak lortzeko.** Honen arabera, ikastetxeen abiapuntua oso anitza da eta, ondorioz, legeak ezartzen dituen helburuei uko egin gabe, plangintza fase desberdinak ezarri beharko lirateke ikastetxe bakoitzaren ezaugarrien eta bere hizkuntz proiektuaren arabera, ikastetxe guztiek finkatutako helburua lortu ahal izateko moduan.
 - ✓ **c) Ikastetxeetan dagoen barne aniztasunaren tratamenduan.** Bi egoera mota daude: une honetan bi edo hiru ereduak ematen dituzten ikastetxeak eta, bestetik, ikasleen aniztasuna, gizarte-, ekonomi eta kultur jatorriak eragindakoa. Aniztasunaren gai hau, euskalduntzearen prozesuan, nabarmen agertzen da ikasle etorkinen artean.



(Euskadiko Eskola Kontseilua) Ezartzeko aldia

- Araudi berria ezarri aurretik, derrigorrezko hizkuntz ebaluazio unibertsala egingo da Lehen Hezkuntzako (6.a) eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako (4.a) azken bi mailetan eta honek emango du behar diren aldaketak dimentsionatu eta sekuentziatzeko aukera. Emaitza horietan oinarrituz, arautuko da euskaraz irakatsiko diren irakasgaiak sartu edo zabaltzeko aukera izango dituzten orduak.
- Era gradualean ezarri beharko da.



(Euskadiko Eskola Kontseilua) Ondorioak ikastetxeentzat

- **Ikastetxeek, beren *autonomiaz* baliatuz, beren **HIZKUNTZA PROIEKTUA** izan beharko dute, ikastetxearen hezkuntza-proiektuaren barruan. Hizkuntza-proiektu horretan ikastetxe bakoitzak jarraituko duen ibilbidea jaso behar du, legeak ezartzen dituen gutxienezko helburuak lortzeko. Hartan adieraziko ditu, besteak beste:**
 - lehenetasuna duten helburuak
 - behar dituen bitartekoak
 - ikasleen aurrerakuntzak egiaztatzeko irizpideak
 - plana ondo doan ebaluatzeko epeak...



(Euskadiko Eskola Kontseilua)

Ondorioak Hezkuntza- administrazioarentzat

- Lehenik eta behin, **Administrazioak orientabideak emango ditu ikastetxearen hizkuntza-proiektua egiteko** eta, geroago, proiektu hori erreferentziatzat hartuko du, ikastetxe bakoitzak ezarritako helburuak betetzen dituen ala ez egiaztatzeko.
- **Ebaluazioak eta bere ondorioek proposatzen dugun sistemaren funtsezko atala izan behar du:** Barne eta kanpo ebaluazioa, proba objektiboaz gain beharrezkoak izango dira azterketa kualitatiboak.
- **Kontrol eta prestakuntza-funtzioa.**



(Euskadiko Eskola Kontseilua) Ondorioak gainerako eragileentzat

- Hezkuntza-sistema da euskalduntzearen lana aurrera eramateko oinarrizko zutabeetako bat. Baina, diagnostikoan esan den legez, prozesu horrek faktore asko hartzen ditu eta **gizarte osoaren ahalegin kolektiboa izango da euskalduntze hori lortzeko berme bakarra**. Gauzak horrela, gizarte-eragile eta eragile politiko guztiei dei egiten diegu.



Euskararen Gizarte Erakundeen **KONTSEILUAK** egindako proposamena

Aurrekariak

- Kontseilua euskararen normalizazioan hezkuntzak duen garrantziaz jabetuta dago.
- Garrantzi berezia eman dio irakastereduen gaiari eta horrek euskararen normalizazioan duen eraginari; horregatik, orain arteko sistema ebaluatu eta legeak ezarritako helburuak lortzen ez dituen heinean eraberritzeko proposamena egiten du.
- Belaunaldi berrien erabateko euskalduntzea ezinbestekoa da gizarte orekatu eta kohesionatuago bat lortzeko, hizkuntza ez dadin izan bi komunitateak bereizten dituen.
- Horretarako:



(Euskararen Gizarte Erakundeen KONTSEILUA) 5 ideia nagusi

1. Euskara irakasteko hizkuntza duen sistema trinko eta bakarra behar da: Euskal Herri osoan belaunaldi berriak erabat euskaldun eleanitzak izatea bermatuko duen sistema.
2. Aurreko helburu hori lortzea da garrantzitsuena eta horretarako epe muga zehatz eta denboran hurbila ezarri behar da. Epe hori bete ahal izateko baldintza batzuk ezinbestekoak dira, bereziki kontratatu berri guztiak euskaldunak izatea.
3. Definitu dugun helburua lortzeko, lege aldaketa ezinbestekoa da.
4. Gurasoen bere seme-alaben heziketan hainbat hautapen egiteko eskubidea eta langileen eskubideak ez daude inolaz ere ikasleen hizkuntza-eskubideen gainetik.
5. Behar diren baliabide guztiak esleitu behar dira behar den erreforma honi bermearekin ekiteko. Gobernuek badituzte behar diren baliabide guztiak horretarako.

✓ Proposamenak

- Ereduak ebaluatu behar dira.
- Helburua betetzen ez dutenak (A eta B) baztertu.
- D ereduari begira, eraginkorragoa izan dadin aldaketak egin behar zaizkio.
- Aldaketa horiek hizkuntza-politika oso batekin dute zerikusia.
- Euskarazko hezkuntza eta hezkuntza euskalduna ez dira gauza bera.
- Euskalduntasuna hizkuntza eta kultura batera hartzen dituen osotasun bat da.
- Hizkuntza ez da komunikaziorako tresna soilik, kultura baten isla eta adierazle da.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACION,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACION

CCOO

Hizkuntza-ereduei buruzko CCOO sindikatuaren proposamena



Lehen baieztapenak

- Sistema erabilgarria, baina gainditua.
- Azterketak ezberdinak izanik ere, hizkuntz ereduen egungo sistemak gutxienez erreforma bat behar du.
- Egungo sistema abian jartzeko egin zen adoste lana goraiatzekoa.
- Euskadiko gizartea nabarmen euskaldundu da. Horretan, hezkuntza sistemak zerikusi handia izan du.
- Egungo sistemak, urteak aurrera joan ahala, eztabaida eragin du.
- Helburuak ez ditu espero bezala bete, legeak aurreikusitakoaren arabera.
- Gure gogoia gizarte elebidun kohesionatuan bizitzea da eta A ereduak gizartean baztertua gelditzeko arriskua dakar: kultur kohesiorik eza, hizkuntz komunitateak nolabait bananduta jarraitzeko arriskua.



Hainbat proposamen

“Zerbait egin beharra” adostasun handia. Proposamenak oso ezberdinak, bateraezinak askotan.

3 diseinu funtsean proposatzen direnak:

- a) Aukera jarraitzailea. Egungoa mantendu. Aldatzekotan, A indartu.
- b) Murgiltze bidea. Eredu bakarra, euskarazkoa, gaztelania irakasgai.
- c) Eredu elebiduna-edo hirueleduna.
 - Gune soziolinguistikoa eta ikastetxearen hizkuntza proiektua kontuan.
 - Hizkuntza indartzeko neurriak.



(CCOO) Balorazioa

- Egungo egitura mantentzea eroso. Adostasun sozial eta politiko berria bilatzea ekidin nahi da.
- Gizarte honen kultura eta hizkuntza arloan dagoen komunitate bikoizketa gainditzeko aukerarik ez. Ez luke konponduko eskolako hizkuntza-banaketa.
- Euskarazko eredu bakarra erakargarria, baina beste hainbat faktore kontuan hartu ezik, ondorioak kontrakoak izateko arriskua.



(CCOO) Proposamena

Honako ezaugarri hauek dituen eredua:

- Eleanitza. Euskara eta gaztelania irakaskuntza prozesuko hizkuntzatzat erabiltzen ditu. Amaieran, bi hizkuntzak jakitea helburu eta 3. hizkuntza, ikastea ere bai.
- Integratzailea. Bi hizkuntz ofizialak elkarren ondoan, ikasleak hizkuntz ereduaren arabera bereiztu gabe.
- Malgua. Ingurune soziolinguistikora egokitua. Beti ere Administrazioak finkaturiko mugen barruan.
- Autonomia. Ikastetxe bakoitzak bere Hizkuntza-Proiektua, Hezkuntza-Proiektuari lotuta .
- Egokitua. Hainbat abiapuntu daudenez, ibilbide eta epe berberak ezin exijitu denei. Nor bere erritmoan, aurreikusitako helburura iristeko.
- Mailakakoa eta ebaluagarria..Esperimentazioa beharrezkoa.Jarraipena ebaluatu eta etengabe adostu behar. Ikastetxe kopurua lehenik zehaztu. Helburua da 3 urteko epean eskaintza ikastetxe guztietara zabaltzea, ebaluaketa ondorengo egokitzapenak eginik.

Eskualde soziolinguistikoa edozein izanik ere, **Administrazioak gehiegikeriarik gerta ez dadin begiratu eta kontrolatu beharko du.**



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACION,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACION

(STEE-EILAS) **Proposamena**

Hizkuntza-ereduei buruzko STEE-EILAS sindikatuaren proposamena



(STEE-EILAS) **Sarrera**

- **Ikasle guztiei hizkuntza-gaitasun bera bermatu behar die hezkuntza-sistemak: Euskara ondo menperatzea, alegia.**
- **Eleaniztasunak ere gure hezkuntza-sisteman lehentasuna izan behar du.**



(STEE-EILAS) Egungo egoera

- Dagoeneko **euskalduntze prozesuak 25 urte** eman ditu hizkuntza ereduen sistema ezarri zenetik **EAEn**.
Batetik, aurrera pauso izugarriak. Bestetik, hutsuneak. Bi hizkuntza ofizialen **ezagutza, guztiz asimetrikoa**. Desoreka ereduen eta sareen artean. Egun, Hezkuntza Sistemak ez die bermatzen ikasle guztiei hizkuntza-gaitasun bera.
- Hizkuntza-ereduen sistema **segregatzailea** da.
- **B** ereduko zenbait kasutan, zein **A** ereduko kasu gehienetan, **legeekiko iruzur baten aurrean gaude**.
- **Iruzur legala** egiten ari gara hainbat belaunaldi gazteri 1982ko Euskararen Erabilera Normalizatzeko Legearen arabera, eta 1993ko Euskal Eskola Publikoaren Legearen arabera. (Ikus 2005ean ISEIk aurkezturiko B2 ikerketa).



(STEE-EILAS) Gure proposamena

- **Eredurik ez, eredu bakarra ere ez.** “Eredu” hitza bera ere **ezabatu** egin behar.
- Tokian tokiko hizkuntz egoera aztertu eta gero, ikastetxeetan eraturako euskararen normalkuntza plan eraginkorrak abian jarri, non murgiltze prozesu malguak ezarriz, ikasleen **euskara gaitasuna bermatua** izan behar duen **derrigorrezko eskolatzea burutzerako**. (B1 erabiltzaile autonomoa Lehen Hezkuntzako 6. mailan eta B2 erabiltzaile gaitua DBH 4. mailan).
- **Ikastetxeak Hizkuntza Normalkuntza plan bana egin behar.**
- **Hizkuntza Politika Integral baten beharra dago.** Erakundeen arteko Plan bat, **euskararen erabilera sustatzeko**.
- **Euskararen normalkuntza gizarteak hartu behar du bere gain, eskolak soilik ezin du.**
- **Epe eta erritmo zehatzak finkatu.**
- **Ikastetxe guztietako langileek (irakasleek zein ez irakasleek) elebidunak izan beharko dute ahalik eta epe laburrenean.**



(STEE-EILAS)

Neurri zehatzak

- **Legedia aldatu.**
- **Ikastetxeko Normalkuntza Planak eratu.**
- **Hizkuntzen trataera bateratuak garatu.**
- **Metodologia komunikatiboan oinarritu.** Ahozkotasunari garrantzi gehiago eman, eta ahozko adierazpenari ordu kopuru jakina eskaini, erregistro ezberdinak landuz.
- **Irakasle kopurua handitu.**
- **Baliabide gehiago bideratu** euskararen egoera soziolinguistiko okerragoko zonetan kokatutako ikastetxeetara (Bizkaiko ezker aldean, Araban, ...).
- **Ikasle etorkinen integratzea sustatu.**



(STEE-EILAS) **Neurri zehatzak**

- **Euskararen salbuespen egoerarik ez** ikasle etorkin zein bestekoentzat.
- **Etengabeko prestakuntza sustatu** irakasleentzat zein ez irakasleentzat.
- **Irakasle zein ez irakasle berriei elebidun izatea eskatu.**
- **Derrigorrezkoak ez diren ikasketetan ere eragin.**
- **Erakundeen arteko Plana eratu**, eskolaz kanpoko ekintzetan, kiroletan, aisialdian, komunikabideetan, ... euskararen erabilera sustatzeko.
- **Plan horien guztien jarraipena eta ebaluazioa.** Barruko zein kanpoko ebaluaketa frogak.
- **Epe eta erritmo zehatzak finkatu.** Lauzpabost urtetan guztiz ezarrita.
- **Aurrekontu Plan Berezia osatu** neurri horiek guztiak finantzatu eta bideragarriak izan daitezen.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACION,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACION

LAB sindikatuaren proposamena

LAB sindikatuaren proposamena hizkuntza-ereduei buruz



(LAB) Helburua

- Euskal Herriko ikastetxe guztiek bete behar duten helburua **euskarazko irakaskuntza bermatzea** da.



(LAB)

Proposamena

- **Irakaskuntza osoa euskaraz** eman eta neska-mutilei euskaraz bizitzen laguntzen dien eredua ezarri. Hau da xedea, eskolako hizkuntza euskara izatea. Berau izatea alor guztietan hizkuntza nagusia.
- **Eskolak euskaraz bizitzeko giroa eskaini behar du.**
- **MURGILTZE SISTEMA OSOA** eskaini behar du eskolak. Murgiltze sistema zabaldu behar da hezkuntza sistema osoan, publiko zein pribatuetan.
- Ikastetxeko irakasle zein **langile guztiek euskaldunak** izan behar dute.
- 0 urtetik aurrerako eskolek euskaldunak izan behar dute.
- Ikastetxe publiko zein pribatuetan, **euskalduntzeko plangintza zehatzak eta mailakatuak** egin behar dira.



(LAB) Proposamena

- **Lanbide Heziketa euskalduntzeko neurriak hartu behar dira.**
- Ikastetxe bakoitzean **Hizkuntz Normalkuntzako Plangintza berriak**. Kontuan hartu behar da herriz herri eta auzoz auzo **eskolatik haratagoko agenteen arteko elkar lana**.
- **Ebaluazio iraunkorra**. Euskara irakasteko **metodologia berritu** eta gaurkotu behar da **eta etengabe ebaluatzeko mekanismoak jarri** behar dira.
- **Materialgintza**. Ikasmaterial egokiak prestatu behar dira.
- **Egoera sozio-ekonomiko latzetako eskualdetan**, etorkin kopuru esanguratsua duten ikastetxeetan **neurri bereziak**.
- Irakasleak eta irakasleak ez diren hezkuntza langileen profesionaltasuna hobetzeko neurriak.
- **Euskal kultura** eta curriculum a edo hezkuntza-programa sustatu.



ELA sindikatuaren proposamena

ELA sindikatuaren proposamena

Hizkuntza-ereduei buruz

**(2007ko otsailaren 8ko bileraren
aktatik jaso)**



(ELA) Helburua

- Helburuak dira garrantzitsuak, eta kasu honetan, gizarte elebiduna izatea.
- Hezkuntza-sistemak helburu horiei erantzun behar die. Hau da, eskola-ibilbidea amaitzean, gazteek trebe izan behar dute, ahoz eta idatziz, euskaraz eta gaztelaniaz.



(ELA) Garapen-fasea

Lau alternatiba daude.

Dena den, ELAren iritziz, lauen artean gizarte elebidunaren aldekoa izango da, eta horrekin kontsekuenteak izango dira.



(ELA) Erabakia

- Erabakia hartu ondoren, zer eragin izango du gizartean eta hezkuntza-sisteman? Fase horretan hartzen diren erabakietan kontuan hartu beharko dira erabiliko diren baliabideak, plangintza horiek lankideengan izango dituzten eraginengatik.
- Funtsean, eskola-aldia amaitzean gazte guztiei bi hizkuntzetan aritzeko erabateko gaitasuna bermatuko diena hobetsiko da.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACION,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACION

Patronalaren proposamena

PATRONALA: Euskadiko Irakaskuntza Kooperatiben Federazioa



(Patronala) Proposamena

- Euskararen trataerari lehentasuna eman beharko zaio.
- Euskal hezkuntza-sistemako ikasle guztiei derrigorrezko eskolaketa bukatzerakoan, benetako elebitasuna ziurtatuko dieten Programak egin behar dira.
- Ikastetxean Hizkuntza Plan Koordinatuak** egon behar dira, hizkuntza bakoitzean ahalmen eta gaitasunak lantzea era harmoniko eta koordinatuan egiteko.
- Administrazioak zehaztu eta finkatu beharko ditu eskuratu beharreko gaitasunak eta edukiak.
- Eskuratze-maila neurtze aldera, **ebaluazio sistema zehatza** ezarri beharko da, horretarako erreferentzia argiak emanaz.
- Europako erreferentzia erabilita, hauxe da proposatzen duten aukera:

	Euskara	Gaztelera	Atzerritar H1	Atzerritar H2
LHko 6. maila	B1	B1	A2	A2
DBHko 4. maila	B2	B2	B1	A2



(Patronala) Proposamena

- Ondorioz, zehazki honako hau proposatzen da:

Ikastetxe bakoitzak bere eredua izatea, malgua eta hizkuntza plan koordinatuan adostua, non hiru hizkuntzak ezagutza-transmisioaren tresna izango diren.



(Patronala) Aipamen bereziak

- 1.- Baliabideen esparrua zabaldu beharko da (bitartekoak, formazioa, kontratazio berriak, material didaktikoak, aisialdia, gurasoen formazioa...). Administrazioak baliabideen aurreikuspena eta egutegia planifikatu beharko ditu.
- 2.- Hizkuntzaren jabetze-prozesuaren eta honen kudeaketaren ebaluazio zorrotza.
- 3.- Ikastetxe guztien egoera ondo definitzeko aurre-ebaluazio zehatza beharrezkoa da.
- 4.- Proposamen hau gauzatzeko ere adostasuna ezinbestekoa da, batez ere eskola komunitatearen barruan.



(Patronala)

Hizkuntzaren gutxieneko mailak ezrtzeko baldintzak

- Haur Hezkuntza: haurraren ama hizkuntzak eskola jardueraren %20 beteko du gutxienez.
- Lehen eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza: Lehen Hezkuntzan 1. hizkuntzatik gutxienez %25, eta Bigarren Hezkuntzan %30.
- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan: eskaintza osoa, bai euskaraz bai gaztelaniaz, ikastetxe bakoitzean edo eskualdeko ikastetxe multzoan. Aukera eman behar da derrigor osorik ez hartzeko, irakasgaika egin ahal izateko. Irizpide hau Helduen Hezkuntzan ere erabil daiteke.
- Atzerriko hizkuntzari dagokionez, Haur Hezkuntzan sartzea aukeran egongo da. Lehen Hezkuntzan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan gutxienez astean 4 ordu izango ditu. Zentro bakoitzak, bere irakasleriaren prestakuntza aurrera doan neurrian, 3. hizkuntzan irakatsiko den curriculumaren portzentaia finkatuko du. Batxilergoan dauden programa hirueledunak bultzatzen eta zabaltzen jarraitu behar da.
- Lanbide Heziketa: esparru honetan garrantzitsua da hizkuntz normalkuntza, euskarari dagokionez hezkuntza sisteman lortutakoetatik urrun samar dagoelako. LH konplexua denez eta irakasleen hizkuntz ezaugarriak kontuan hartuta, berariazko plana behar du, hezkuntza eta gizarte eragile guztiek adostua.



- **Azaldutako proposamena teknikoki bideragarria iruditzen zaigu. Esperimentatze-aldia beharrezko.**
- Egoera ezberdinei egokitzeko gaitasuna eta malgutasuna ditu oinarritzat.
- “Guztiontzako kafea” baztertuta, ibilbideak, erritmoak eta planifikatzeko epeak ezartzen dira, legeak onartutako helburura iristeko.
- Adostasun politikak bilatuz eta gehienen atxikipena eskuratuz.



(Patronala)

Beste hainbat iritzi: ereduetatik haratago

- Egungo sistemaren erreforma sakona nahi dugu. Aldaketa mugatua izango da, elebitasuna eta kohesio soziala faktore multzo konplexu baten arabera direlako. Eskolak eragin mugatua, berak bakarrik eragiteko.
- Eskolaz gain, herritarrek eta beste eragileek borondate irmoa izan behar dute. Eskolaren gain bakarrik utziz gero, zama handiegia izango da, eta gizartearen benetako egoerarekin zer ikusirik ez duen hizkuntz burbuila bihur daiteke.
- Horregatik, euskara akademia-hizkuntz egoeratik atera behar da, eta komunikazio hizkuntza bihurtu.
- Metodologiari dagokionez, komunikaziozko ikuspegiak landu. Hizkuntzak era integratuagoan landu.
- Hizkuntza ikastea afektibotasunari, hartu-emanari eta motibazioari lotu.
- Euskara komunikazio tresna bihurtzea. Ez da erraza izango, eta, argi dago ez dela aginduen bidez bakarrik lortuko; komunikazio-guneak sortu behar dira, hizkuntza horretan hitz egitea ohikoa, eraginkorra eta atsegina izatea eskaintzen dutenak.
- Gaitasun maila era sistematizatuan eta homologatuan neurtu behar.
- Alderdi horiek guztiak ikastetxeek kontuan hartu behar dituzte derrigorrez eratu behar dituzten Hizkuntz Egitasmoetan. Ulibarri programa –edo beste programa bat- zabaldu egin behar da eta hizkuntz aholkularitza ziurtatu ikastetxe guztietan.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACION,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACION

Hizkuntzak irakatsi eta ikasteko markoa EAEn

*Proposamen
berritzailea
eta eleanitza
XXI.
menderako*





Baztertze-politikatik integrazio- politiketara

- a. Hamarkada luzeetan euskararen kontrako eta euskara bera baztertzeko legeak eman ostean, Gernikako Estatutuak hau aldarrikatzen du:
“Euskarak, Euskal Herriaren berezko hizkuntza denez, hizkuntza ofizialen maila izango du Euskal Herrian gaztelaniarekin batera eta guztiek dute bi hizkuntzok ezagutzeko eta erabiltzeko eskubidea.” (6.1 artikulua)



Baztertze-politikatatik integrazio-politiketara

- ✓ **Euskararen kontra eragiteko** herri-agintek hezkuntza-sistemari eragin zioten inplikazio negatibo eta baztertzailetik, inplikazio hori positiboa izatera pasatu zen Eusko Legebiltzarra eta Eusko Jaurlaritza eratzean. Inplikazio positibo horrek gizarte integratua erraztu zuen, elebitasun partekatuan afektiboki eta modu eraginkorren elkarrekin bizitzeko gai dena. Egungo legediak zentzu hori du, eta argia eta zehatza da, horri dagokionez:
- ✓ **“Jaurlaritzak, ikaslegoari derrigorrezko eskolaldia bukatzerakoan bi hizkuntza ofizialak erabiltzeko adina ezagutuko ditueneko segurantzak emateko xedezko neurriak hartu eta euskera-giroa bermatuko du, barne nahiz kanpo-ekintzapidetan eta Arduralaritzako ihardun eta agirietan euskera agizko adierazpide eginez.** Euskeraren erabilpena arauzkotzeko abenduaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 17. artikulua.



Baztertze-politiketarik integrazio- politika barne hartzaileetara

- ***“Euskara eta gaztelania nahitaez sartuko dira euskal eskola publikoan gara daitezen irakaskuntza-programetan, bi hizkuntzen ahozko zein idatzizko ulermena eta adierazmena benetakoa izan eta gutxienez ohizko harremanetarako eta erabilerako hizkuntza gisa erabili ahal izan daitezen”.*** Euskal Eskola Publikoari buruzko otsailaren 19ko 1/1993 Legearen 18. art.
- Eusko Jaurlaritzak eta horren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak beste hizkuntza batzuen ezagutza ere sustatu dute, eta EAE aintzindaria da hirueledun ikaskuntzan, derrigorrez eskolaratu beharreko etapetan; horrela, bada, aurrea hartu die EUROPEAR HERRIALDEETAKO orientazioei eta proposamenei (***Eleaniztasunerako Estrategia Marko Berria, Brusela, 2005.11.22***).



25 urteko esperientzia ebaluatzen

- Derrigorrezko eskolaldia amaitutakoan EAEko hizkuntza ofizial bat zein bestea jarotasunez eta oso ondo hitz egiten dutenen kopurua nahiko handia da, eskolaren inplikazioari esker. Horien artean, askok eta askok hirugarren hizkuntza batean komunikatzeko gaitasuna ere badu.
- Aurrerapausuak handiak izan dira; hala ere, oraindik ez da lortu indarrean dauden ereduetan ikasi duten herritar gehienen integrazio eleanitza. EAEko herritarrak ordezkatzuz Eusko Legebiltzarrak eman dituen legeak eta elkarren osteko gobernuek emandako neurriek ez dira espero bezain eraginkorrak izan, eta gazte guztiek ez dute lortu geure erkidegoko hizkuntza ofizial bietan jarotasun arruntez komunikatzea derrigorrezko eskolaldia amaitutakoan.
- Hezkuntza, eskola, beharrezkoa da, baina ez da nahikoa edozein herritar gure gizartean hizkuntza biez balia dadin. Hezkuntza beharrezkoa da hizkuntza bion ezagupena orokortzeko. Baina ez da nahikoa hizkuntzon erabilpena bermatzeko; izan ere, gizarte-gune (familia, kalea, auzoa, “kuadrila”, aisia, lana, teknologia-berrikuntzak, laguntza-zerbitzuak...) bakoitzaren jokaeraren arabera lortuko da hori.



25 urteko esperientzia ebaluatzen

- Egindako ebaluazioen arabera, gaztelaniaz komunikatzeko gaitasuna bermatua dago indarrean dauden eredu guztietan (eredu bateko eta besteko ikasleen arteko aldeak oso txikiak dira; dena dela, horrek ez du esan nahi, bereziki kasu batzuetan, ez dela komeni kalitatea hobetzen jarraitzea).
- Egoera bestelakoa da euskararen kasuan, egindako ebaluazioek argi erakusten dutenez.
- Hainbat ebaluazio egin eta emaitzak alderatu ondoren, emaitzak ikusita egoeraren zergatiak aurkitu eta hobetzeko estrategiak proposatu behar ditugu:
 - ✓ Zenbat eta gutxiago erabili euskara irakaskuntza-hizkuntza bezala, orduan eta hizkuntza-gaitasun gutxiago euskaraz. Korrelazio hori ageri-agerikoa da. Ikasi-irakatsi prozesuan euskaraz murgilduta emandako denbora oso erabakiorra da, gaur arte egindako ebaluazioen arabera.
 - ✓ EAEko hizkuntza ofizialetan murgiltzeko aukerak oso desberdinak dira. Ikasle asko eta askorentzat, eskola da euskaraz murgiltzeko kontestu nagusia euskararen ikaskuntzan. Gauza bera gertatzen zaie hirugarren edo laugarren hizkuntza ikasi nahi duten ikasleei.



EAEko gaurko hezkuntza-erronkak integrazio eleanitzerako

- Europako Batzordearen estrategia markoak eleaniztasuna erraztu nahi du solidaritatearen ikuspuntutik asmo handiko erronka baten helburutzat:
 - ✓ *“Europako batasuna kontzeptu honetan oinarritzen da: “batasuna aniztasunean”: kultura, ohitura, sinesmen... eta hizkuntzen aniztasuna. Batasunean, hogeitaz hizkuntza ofizial ez ezik, bertako hirurogei hizkuntza inguru ere hitz egiten dira, eta bertoko ez diren hainbat hizkuntza ere bai, etorkinen komunitateenak hain zuzen. Aniztasun horrek ageri-agerian uzten du Europako Batasuna ez dela desberdintasunak bat egiten dituen “arragoa”, etxe partekatua baino, eta bertan gure ama-hizkuntzak, hamaikatxo izan arren, aberastasun-iturri dira eta solidaritatea eta elkar ulertzea lantzeko lurra (Europako Batasuna. 596 komunikazioa: Eleaniztasunerako Estrategia Marko Berria. Brusela, 2005.11.22).*



EAEko gaurko hezkuntza-erronkak integrazio eleanitzerako

- *Europako erreferentzia-marko* horren ispiritua aplikatzerakoan, hizkuntzak EAEko egungo egoera historikoan ikasi, irakatsi eta ebaluatzeko, erronka zehatzak planteatzen dizkigu:
- Elkarbizitza demokratikoki partekatuak bateragarri egin behar ditu norberak askatasunez erabakitzeko eskubidearen errespetua, herritarrei dagokienez, eta gainerako herritarrek ere eskubide hori izateko berme solidarioa. Demokrazian herritarrek elkarri pertsonen askatasuna eta berdintasuna eskatzen diote, baina hori aldi berean aplikatzeak **erronka bereziak** dakartza gurea bezalako aniztasun-maila altuko gizarteetan; izan ere, hizkuntza ofizial bien (euskara eta gaztelaniaren) arteko lehentasunak eta beste batzuen (batez ere ingelesa) arteko lehentasunak markatzeko, funtzionalitate komunikatiboko irizpideak erabiltzen dira, bai eta irizpide sinbolikoak eta identitate-adierazpenekoak ere.



EAEko gaurko hezkuntza-erronkak integrazio eleanitzerako

- Aukera pertsonal diferenteak dituzten pertsonen arteko bizikidetza libreak, euren sentimendu eta lehentasunezko hizkuntza-erabilerei dagokienez, eskatzen du Euskadin elkarreragiten duten pertsonak eraginkortasunez errespetatzea herritar guztiek hautatzen duten erabilera-hizkuntza.
- Gainera, egungo euskal gizartean bizikidetza integratuaren helburuak izan behar du pertsona guztiek, gutxienez, gaitasun pasiboa izatea lurraldeko hizkuntza ofizial bietan.
- Konpromiso hori euskal hezkuntza-sisteman aplikatu behar da bereziki; izan ere, eremu pribilegiatua da errespetu proaktiboaz baliatzeko, eta irakasleen zatirik handiena elkarbizitza eleanitzaren eredu dugu.
- Euskal herritarrek erkidegoko hizkuntza ofizial biak ez ezik, atzerriko beste hizkuntza batzuk (ingelesa eta, behar izanez gero, frantsesa edo beste hizkuntza bat) ere jakin behar dituzte, maila pertsonal, profesional eta intelektualean garatu nahi badute. Horrela, bere herritik gai izango dira sare orokorrekin konektatzeko, eta, era horretan, errazagoa suertatuko zaie ezagupenak eta esperientziak gunerik aurreratuenekin trukatzeko.



Egungo erronkei aurre egiteko printzipioak, esperientzak eta erreferentziak

- Egun, EAEko herritarren integrazio eleanitzaren aldeko printzipioak erabat hedatuta daude; horrez gain, geure esperientzia propioak ditugu, bide arrakastatsuak eta antzuak erakusten digutenak; halaber, aditurik onenek bermatzen dituzten orientazioak ere oso lagungarri ditugu, eta Europako eremurako, *Europako Erreferentzia Markoan* jaso dira.
- *Europako erreferentzia-markoak* oinarri bateratua eskaintzen du hizkuntza-programak, kurrikulu-orientazioak, azterketak, eskuliburuak... jorratzeko Europa osoan. Halaber, modu integratzailean deskribatzen du zer egin behar duten hizkuntza-ikasleek hizkuntza batean komunikatzen ikasteko, bai eta zein ezagupen eta gaitasun garatu behar duten eraginkor jokatzeko. Deskripzio horrek hizkuntzaren kultura-kontestua ere hartzen du bere baitan. Horrezaz gain, *Erreferentzia Markoak* hizkuntza-mailak ere deskribatzen ditu, ikasketa-fase bakoitzean eta bizitza osoan zehar ikasleak izan duen aurrerapena egiaztatzeko. (**Hizkuntzen ikaskuntza, irakaskuntza eta ebaluaziorako Europako Erreferentzia Markoa**, Council of Europe Modern Languages Division. Strasbourg, 2001, 12. or)



Euskal Hezkuntza-sistemaren helburuak

- **Euskal Hezkuntza-sistemaren helburu nagusietako batek izan behar du: “Euskal gizarte anitzean eta mundu konplexuan elkarrekin bizitzen irakastea”.**
- **Hezkuntza eleanitza: gure gazteen errealizazio pertsonalean laguntzeko, mundu gero eta globalago batean euren garapenean gaitzeko eta mundu bihozbera, bidezko, solidario, aurreratu eta jasangarriagoa eraikitzen lagun diezaiegun. Euskal kurrikulumaren globalizazioa indartu behar da. Era berean, ikasleak hainbat hizkuntzatan gaitu behar dira. Hori dela eta, euskaraz eta gaztelaniaz jakin behar dute, eta Europako strategiari jarraiki, Euskal Hezkuntza-sistemaren helburu izan behar du atzerriko hizkuntza bat edo gehiago irakastea. Hori guztia egin behar da, beti ere jakinik euskara eta gaztelania hizkuntza ofizialak direla eta euskara, momentuz behintzat, egoera txarragoan dagoela.**



Marko eleanitz berriaren printzipioak

- **EAEko hizkuntza ofizial biei dagokienez:**
 - ✓ Elkarbizitza afektibo eta eraginkorraren baloreetan hezteak EAEko bi hizkuntza ofizialei modu desberdinean atxiki zaizkien pertsonak.
 - ✓ Unean-unean gizarte- eta hezkuntza-baldintzarik onenak sortzea, derrigorrezko hezkuntza-prozesua amaitzean herritarrek hizkuntza ofizial bien ezagupen-maila nahikoa izan dezaten eta euren artean hizkuntza batean zein bestean komunika daitezten.

- **Beste hizkuntza batzuei dagokienez:**
 - ✓ Une oro gizarte- eta hezkuntza-baldintzarik onenak sortzea, euskal herritarrek gai izan daitezten, gutxienez, beste hizkuntza batean komunikatzeko oinarritzko ezagupenak lortzeko.



Hezkuntza-politika eleanitz eraginkorra gauzatzeko baliabideak

- **Eskola-populazioarentzat oinarrizko estandar bateratuak finkatzea**, hala bi hizkuntza ofizialei nola beste hizkuntza bati/batzuei dagokienez.
- **Maila bakoitzeko ikasleen** (Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza bukatzen duten ikasleen) **ebaluazio bateratu objetiboa** (egun berean eta ordu berean).
- **Hizkuntzetan ikastea** (hizkuntzak eurak ikasteko baliabide nagusia).



Hezkuntza-politika eleanitz eraginkorra gauzateko baliabideak

- Ikasketa-hizkuntzen sailkapena moduluka egitea, eremu bakoitzaren beharrian eta berezitasun zehatzen arabera, talde-bazterketa ekiditeko, helburu bateratuak lortzeari dagokionez.
 - ✓ Irakasleak prestatzea, ezarritako ikasketa-hizkuntzetan programak garatzeko.
 - ✓ Hizkuntza bakoitzean ikasteko materialak garatzea.
 - ✓ Ikastetxe guztien esperientziak elkarren artean trukatzeko, horietatik etengabeko hobekuntzan ikasteko (banku handi bat sortuta, esperientzia horiek eraginkortasunez aprobetxatzeko, ezagupenaren eta jokaeraren kudeaketa-teknika eta –metodoak aplikatuta).
- Hezkuntza-ekimenen zeharkako integrazioa sustatzea elkarbizitza eleanitzera bideratutako beste erakunde (instituzional edo sozial) batzuekin, herritarrek beren aukera askatasunez erabaki dezaten.



Hizkuntzak irakatsi eta ikasteko marko berrizailea

- Proposatzen den markoa **berrizailea** da arrazoi hauengatik:
 - ✓ Gure hizkuntza-politika eta Europako Erkidegoarena bateratzen ditugu, helburuei eta baliabideei dagokienez. Zentzu horretan, Europako Hizkuntzen Erreferentzia Markoan sartzen da proposamena :
 - ✓ Malgua da: era askotako egoeretan erabiltzeko modukoa da.
 - ✓ Irekia: zabaldu eta hobetzeko modukoa da.
 - ✓ Dinamikoa: erabileratik hartutako esperientziari erantzuten dio.
 - ✓ Adierazpen-helburuetatik helburu operatiboetara pasatzen da; helburuok “ahalmen/gaitasun” terminotzat hartu behar dira, eta hiritartasun terminotzat ere bai (ez dira helburu “didaktikoak”, eskola-jarduerara mugatuak, gizarte-eremuko helburuak baino, derrigorrezko hezkuntzak erantzun beharrekoak). Euskal Herriko historian lehen aldiz, bi hizkuntza ofizialen gaitasunean lortu beharreko helburuak finkatzen dira.



Hizkuntzak irakatsi eta ikasteko marko berritzailea

- Proposatzen den markoa **berritzailea** da arrazoi hauengatik:
 - ✓ Atzerriko hizkuntz(ar)entzat helburu zehatzak finkatzen ditu, hizkuntza ofizialentzat egiten duen bezalaxe.
 - ✓ Gizarte-kohesioa bultzatzen du.
 - ✓ Ikasle guztien aukera-berdintasuna bermatzen du, XXI. mendeko euskal gizartearen kultura arteko marko berrian.



Ikasi eta irakasteko marko eleanitza


▪ Eleanitza:

- ✓ Egungo ereduak testuinguru elebidunean oinarritzen dira. Beraz testuinguru eleanitzaren beharriari erantzuten dien marko batera pasatu behar da. Ondorioz, gure hezkuntza-sistema gizarte- eta hizkuntza-egoera berrira moldatu behar da; izan ere, Euskal Herria egoera horretara moldatzen ari da eta dagoeneko egoera hori bizi du.
- ✓ Hizkuntza ofizial bien –hizkuntza biok komunikatzeko bide izan daitezkeen– eta atzerriko hizkuntza baten edo biren ezagupen nahikoa lortzera bideratua.
- ✓ Derrigorrezko hezkuntzaren barruan lortu beharreko helburu operatibotzat helburu hauek finkatu beharko lirateke:
 - ✓ Gaztelania: B2-DBH/B1-LH
 - ✓ Euskara : B2-DBH/B1-LH
 - ✓ Ingelesa/frantsesa: B1-DBH
- ✓ Markoak maila horiek gainditzeko asmoa du, hiritarrak etengabeko hezkuntzako prozesuetan sartzen diren neurrian, beren pertsona- eta gizarte-hezkuntza- edo lanbide-garapenean (hurrengo hezkuntza-testuinguru batzuetan, irakaskuntza formal, informal edo ez formalaren bidez).



Europako hizkuntzen erreferentzia- maila bateratuak

- Europako Erreferentzia Markoan erreferentzia-maila bateratuak ezarri dira, A1etik C2ra doazenak. A mailak hasierakoak baino ez dira; B mailek, berriz, maila praktikoa nahikoa eskaintzen dute, hizkuntza batean erabiltzaile independente bezala moldatzeko modukoak; azkenik, C mailek adierazten dute hiztunek jariotasunez eta oso ondo hitz egiten dutela.
- Erreferentzia-maila bateratuak
Dirudienez, praktikan kontsentsu handia dago, ez hala ere unibertsala, hizkuntzen irakaskuntza antolatzeko mailen kopuruari eta izaerari dagokionez, eta baita irits daitezkeen lorpenen ezagutza publikoari dagokionez ere. Sei maila zabalez osatutako marko orokor bat egokia da Europako hizkuntza-ikasleek helburu horiek lortzeko bete beharreko ikaskuntza-espazioa betetzeko.





Ikasi eta irakasteko marko eleanitza

- **Euskara izango da marko berriaren ikas-irakaskuntzaren hizkuntza nagusia.** Hau da, euskarak irakas-hizkuntza integratzailea izan behar du. Izan ere, gaurko egoeran (eta aurreikusi daitekeen etorkizunean), gaztelaniarentzat ez da ezer aldatuko, eta praxiak argi eta garbi erakutsi du ikaste-prozesuan euskararen murgiltzea funtsezkoa dela komunikazio-ahalmenak eskuratzeko, ahozkoak zein idatzizkoak; gainera, egiaztatuta dago ikasleak urtean bizitzaren %17 baino ez duela ematen ikastetxe batean ikasten.
- Gaztelania, ere, ikas-hizkuntzatzat hartuko da, beraren erregistro formalak behar bezala ezagutzen direla bermatzeko.
- Atzerriko hizkuntza/k modu osagarrian landuko dira, atzerriko hizkuntza bera eta atzerriko hizkuntza horrexetan ikasita, proposatutako maila lortzeko, baina hizkuntza ofizialetarako jarritako helburuak murriztu gabe.



Ikasi eta irakasteko marko eleanitza

▪ Bilbatzailea /Sendoa:

- ✓ Gernikako Estatutuaren 6. artikulua araberaz, “Komunitate Autonomoko Erakunde amankomunek Euskal Herriko egoera sozio linguistikoaren ñabardurak kontutan izanik, bi hizkuntzen erabilpena bermatuko dute, beroien ofizialtasuna erregulatuz, eta beroien ezagutza segurtatzeko behar diren neurriak eta medioak erabaki eta baliaraziko dituzte”.
- ✓ Euskararen erabilpena arauzkotzeko oinarrizko Legearen 17. artikulua araberaz, Jaurlaritzak neurriak eman behar ditu “elebitasuna” benetakoa izan dadin.
- ✓ Bestetik, praktikan ezin da hizkuntzak ikasteko eta irakasteko 796 marko izan, hau da, ezin da ikastetxe beste marko izan.
- ✓ Horretarako, proposatutako helburuak lortze aldera, EAEn hizkuntzak ikasi eta irakasteko markoaren egitura orokorra arautuko dute Eusko Legebiltzarrak eta Eusko Jaurlaritzak.



Ikasi eta irakasteko marko eleanitza

▪ **Malgua:**

- ✓ Ikastetxeek hizkuntza-proiektua (eleanitza) diseinatu, eta hezkuntza-proiektuan txertatutako dute, erkidegoko erakundeek zehaztutako markoaren barruan proposatutako helburuak lortzeko.
- ✓ Irakas-hizkuntzat hartzen den hizkuntza-kopurua handitu ahal izango da (hizkuntza ofizial bien lehentasuna ahaztu gabe), marko orokorrarekiko; horretarako, kontuan hartuko dira ikasketa-prozesuan lortutako emaitzak, jardute-eremuaren gizarte- eta hizkuntza-ezaugarriak, ikasleen ezaugarriak ...

▪ **Gizarte-kohesioaren bultzatzaile:**

- ✓ Ikastetxe, herri edo hiri bateko ikasle guztiak antzeko sistema batean eskolaratuko dira, eta ulertu behar da etapa bakoitzeko azken helburuek ikasle guzti-guztiei eragingo dietela, ikasleen hizkuntza-jatorria edo hezkuntza-sisteman sartu ziren unea gorabehera (hizkuntza-marjinazioko prozesurik gertatzeko arriskua ekidin behar da, helburu bateratuei dagokienez).



Ebaluazioaren garrantzia

- Hezkuntza sistemaren edozein helburuk ebaluazio-mekanismoak erabili behar ditu, lorpenak neurtu eta prozesuak egokitzeko. Hezkuntza-gaikuntzako prozesuetan, berriz, ebaluazio hori behar-beharrezkoa da; izan ere, nahi izan den ikaskuntzaren lorpenek baino ez dituzte ondu behar erabilitako baliabideak.
- Ikastetxe bakoitzean ikaskuntza-metodologiak eta –programak era malguan erabiltzeko, behar-beharrezkoa da lortutako emaitzen ebaluazio zorrotzak egitea.
- Ebaluazioaren helburua sistema hobetzea da, lortu nahi diren helburuetara egokitzeko. Horrenbestez, bereziki zainduko da ebaluazioa, beste helburu batzuetara bidera ez dadin (emaitzen erabilera partzialetara edo/eta interesatuetara).
- Aurretiaz finkatutako mailak lortzeko neurri zuzentzaileak sartzeko balio behar izango dute ebaluazioen emaitzek. Era berean, ikastetxearen beraren, familien, Hezkuntza-administrazioaren eta Eusko Legebiltzarraren jardute-politika bideratzen lagunduko dute.



Nola ebaluatu helburuen betetze-maila?

- Irakas Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundeak (ISEI-IVEIk) egun eta ordu berean proba berdina egingo die ezarritako maila bereko talde guztiei (LH eta DBHko azken etapetakoei) EAeko ikastetxe guztietan. Proba horren bidez, ikasle bakoitzak lortutako ezagupen-maila ebaluatuko da.
- Horrez gain, tarteko diagnosi-ebaluazioak ere egingo dira (LH-4/DBH-2), ikastetxe guztien ikasleen bilakaera ezagutzeko. Horrela, bada, azken helburuak lortzeko, plangintzan egokitzapen edo doiketa egokiak egiten lagunduko dieten adierazleak izango dituzte ikastetxeek.
- Bestalde, ikastetxeek beren ebaluazio-politika sartu ahal dute hizkuntza-proiektuan, eta ikaslerik nagusienez, berriz, autoebaluaziorako tresnak erabili ahal dituzte, esaterako, Dialang (www.dialang.org), Europako Batzordeak sustatua eta autoebaluazioa 14 hizkuntzatan (ez dago euskaraz) egiten laguntzen duena.



Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren (HUISen) papera

- Irakasleen komunikazio-gaitasunak erkidegoaren hizkuntza ofizial bietan hobetzea bultzatuko du (eta atzerriko hizkuntzan, atzerriko hizkuntzako irakasleena).
- Irakatsi eta ikasteko praktika onak orokortzea.
- Hizkuntza ofizial bien irakaskuntza sendotzeko baliabide osagarriak jarriko ditu.
- Antolatze eta parte hartze antolakuntza-era berriak eskainiko ditu, erakunde-jarduerari dagokionez, eta hizkuntza normalizatzeko plan trinkoekin jarraituko du: NOLEGA/Ulibarri (hainbat erakunderen artean sarean lan eginez), didaktika-aholkularitzako asmo handiko programa bat indartuz.
- Ikasleen elkarbizitza afektibo eta eraginkorra bultzatuko du hizkuntza ofizial biekiko.
- Prestakuntza teorikoa indartuko du, praktikaren azterketari lotu, hausnarketa-bideak zabaldu eta beste eragile batzuekin batera aztertuta: unibertsitateak, irakasleak prestatzeko ikastaroak, ebaluazio-lerroak diseinatzea...
- Eskola-eremuak ez diren beste gizarte-, ekonomia- eta kultura-elkarte batzuekiko eta erakunde publiko eta pribatuekiko koordinazioa bultzatuko du, euskal herritarrek hizkuntza-aukera askatasunez erabaki dezaten gizartean: kirol- eta kultura-ekintzetan, aisialdian, ikastaroetan, txangoetan...



Araudia aldatzea

- Adostu izanez gero, Eusko Legebiltzarrak hizkuntzak ikasi eta irakasteko EAEko marko berriaren Legea onartuko du.
- Ezarritako markoa Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak garatuko luke, dekretu eta agindu egokiak emanaz.



Aldaketa-prozesua

- Lehen Hezkuntzako lehenengo mailan jarriko litzateke martxan marko berria. Egungo ereduen sisteman hasitako ikasleak, berriz, sistema berarekin jarraituko dute graduatu arte. Dena den, horrek ez du esan nahi ikastetxeen hizkuntza-proiektuetan ezin dela egoera bikoitza kontuan izan eta jarduerak ezarri, egungo ereduen sistemako ikasleak Marko Eleanitz berriak proposatutako helburuetara hurbiltzeko.
- Marko berria 10 urtean ezarriko da, eta epe hori amaitzean ebaluazio orokorra egingo zaio.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACION,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACION

ERANSKINAK



Erreferentzia-maila bateratuak.

40. or. eta hurrengoak

Autoebaluaziorako taulak.

Entzumena eta irakurmena

		A1	A2	B1	B2	C1	C2
ULERTZEA	Entzumena	Gai naiz hitz arruntenak eta oso oinarritzko esapideak ulertzeko nitaz, nire familiaz eta inguruko gauzez, jendeak astiro hitz egiten duenean.	Gai naiz lexiko eta esapide erabilienak ulertzeko zuzenean dagozkidan arloetan (adib. Oinarritzko informazioa nitaz, nire familiaz, erosketez, inguruaz, lanaz). Iragarki eta mezu labur, simple eta argietan gai naiz ideia nagusiaz jabetzeko.	Gai naiz ideia nagusiak ulertzeko, hizketa argi eta estandarra denean, eta gaiak ezagunak direnean: lana, eskola, aisialdia, etab. Ulertzen dut gaur egungo gaez edo interes pertsonaleko edo profesionaleko gaez dihardunenen telebista- edo irrati-saioteko ideiak nagusiak, baldin eta poliki eta argi hitz egiten badute.	Gai naiz konferentzia eta hitzaldi aski luzeak ulertzeko. Era berean, argudio konplexuak ere ulertzen ditut, baldin eta gaia gutxi-asko ezaguna badut. Ulertzen ditut telebistako albistegiak eta eguneko gorabeherei buruzko saio gehienak. Gai naiz hizkuntza estandarrean ematen diren film gehienak ulertzeko.	Gai naiz berbaldi luze bat ulertzeko, oso garbi egituratuta ez badago ere edo erlazioak oso esplizituak izan ez arren. Telebista-programak eta filmak neke handirik gabe ulertzen ditut.	Ez dut inolako arazorik edozein hizketaldi ulertzeko, ez zuzenekoa, ezta konunikabideetako ere, baita jatorritzko hitzunen abiaduran hitz egiten dutenean ere, baldin eta bere hizkera-moduarekin ohitzeko denbora badut.
	Irakurmena	Gai naiz hitz eta izen oso ezagunak ulertzeko, baita esaldi oso sinpleak ere. Adibidez, iragarkietan, posterretan edo katalogoetan.	Gai naiz testu labur eta oso sinpleak irakurtzeko. Gai naiz informazio jakin eta aurreikus daitekeena eguneroko dokumentu arruntetan bilatzeko, esate baterako iragarkietan, prospektuetan, menuetan eta ordutegietan. Gai naiz gutun pertsonal labur eta sinpleak ulertzeko.	Gai naiz hizkera arruntan idatzitako testuak edo nire lanari buruzkoak ulertzeko. Gai naiz gertaeren deskribapena edota sentimenduen eta desioen azalpena ulertzeko gutun pertsonaletan.	Gai naiz gaur eguneko gaiak buruzko artikulak eta txostenak irakurtzeko, egileak jarrera jakin bat edota ikuspuntu berezia erakusten duenean. Gai naiz gaur eguneko hitz lauzko literatura-testuak irakurtzeko.	Gai naiz gertakarietan oinarritutako testuak edo literatura-testu luze eta konplexuak ulertzeko eta estiloak bereizteko. Gai naiz artikulak espezializatuak eta argibide tekniko luzeak irakurtzeko, nire eremukoak ez badira ere.	Gai naiz edozein testu-mota irakurtzeko, aita abstraktuak eta egituraz edo hizkuntzaz zailak direnak ere. Adibidez, eskuliburuak, artikulak espezializatuak edo literatura-lana.



Erreferentzia-maila bateratuak

Hitz egitea

		A1	A2	B1	B2	C1	C2
HITZ EGITEA	Ahozko elkarreragina	Gai naiz modu sinplean komunikatzeko, baina solaskidearen menpe nago, hark prest egon behar baitu nik esandakoa astiro errepikatuz, birformulatzeko edo nik nahi dudana esaten laguntzeko. Gai naiz berehalako premiei edo oso gai arruntei buruzko galdera errazak egin eta erantzuteko.	Gai naiz komunikatzeko jardura eta arlo ezagunetan, informazio-trukea zuzena eta sinplea denean. Elkarrizketa osoa jarraitzeko adina ulertzen ez badut ere, gai naiz informazio-truke laborrak egiteko.	Gai naiz hizkuntza mintzatzen den herrialdera egindako bidaiaren batean gerta litezkeen egoera gehienei aurre egiteko. Gai naiz, prestatu gabe ere elkarrizketan parte hartzeko, gaiak ezagunak direnean, interes pertsonalekoak edo bizimodu arruntekoak (familia, aisialdia, lana, bidaiak, albisteak...)	Gai naiz jatorrizko hitzuntz batekin normal mintzatzeko, berezkotasun eta erraztasun nahikoarekin. Gai naiz elkarrizketan era aktiboan parte hartzeko eta nire iritziak azaldu eta defenditzeko egoera ezagunetan.	Gai naiz natural eta jarioz hitz egiteko, esapideen bila nabarmen luzatu gabe. Badakit hizkuntza gizarte- edo lanbide-erlazioetan malgu eta eraginkor erabiltzen. Badakit neure ideia eta iritziak zehatz adierazten eta neure adierazpenak beste solaskideenekin trebeziaz lotzen.	Gai naiz ahalegin handirik egin gabe, edozein elkarrizketa edo eztabaidatan parte hartzeko. Esamoldeak eta lagunarteko hizkera ondo erabiltzen ditut. Zailtasunen bat badut gain naiz atzera egiteko eta hutsunea trebeziaz konpontzeko solaskidea ia konturatu gabe.
	Ahozko adierazpena	Gai naiz esaldi eta esapide sinpleak erabiliz nire bizilekua eta jende ezaguna deskribatzeko.	Gai naiz esaldiak eta esapideak sora batean erabiltzeko honelakoak era sinplean deskribatuz: nire edo beste norbaiten familia, nire bizimodua, ikasketak, oraingo edo lehengo lana.	Gai naiz esaldiak era sinplean josteko, honelakoak deskribatzearren: esperientziak, gertaerak, ametsak, itzaropenak eta helburuak. Gai naiz nire iritzi edo proiektuen arrazoiak eta azalpenak laburki emateko. Badakit istorioak kontatzen, liburuen eta filmen argumentuak azaltzen eta horiek nigan sortutako erreakzioa adierazten.	Badakit zehatz eta argi hitz egiten nire intereseko gai askori buruz. Gai naiz gaur eguneko gorabeheren gainean nire ikuspuntua adierazteko, aukera desberdinen alde onak eta txarrak azalduz.	Gai naiz deskribapen argiak eta xeheak egiteko gai konplexuei buruz, horiekin lotutako gaiak integratuz, zenbait puntu garatuz eta berbaldua egoki amaituz.	Gai naiz deskribapen edo argudioen azalpen argiak jarioz egiteko eta testuinguruarekin egokitutako estiloan, horretarako egitura logiko eta eraginkorrek erabiliz, entzuleari ideia nagusiei errepikatzen eta haiek gogorarazten laguntzeko.



Erreferentzia-maila bateratuak

Idaztea

		A1	A2	B1	B2	C1	C2
IDAZTEA	Idazmena	Gai naiz postal laburrak eta errazak idazteko, esaterako, oporretakoak. Gai naiz nire datu pertsonalak galdetegi batean idazteko. Adibidez, izena, nazionalitatea edo helbidea hoteleko erregistroan.	Gai naiz berehalako premiei buruzko ohar eta mezu sinpleak idazteko. Gai naiz gutun pertsonal oso sinpleak idazteko, adibidez eskerrak ematekoak.	Gai naiz testu sinpleak eta koherenteak idazteko, gai ezagunen edo interes pertsonalekoen gainean. Gai naiz gutun pertsonalak idazteko, nire esperientziak eta irudipenak adieraziz.	Gai naiz nire intereseko gai askoren inguruan, testua argiak eta xeheak idazteko. Gai naiz idazleren bat edo txosten bat egiteko informazio jakin bat adieraziz edota iritzi baten aldeko edo kontrako arrazoiak emanez. Gai naiz gutunak idazteko, gertaerei eta esperientziei ematen didan garrantzia nabarmenduz.	Gai naiz testu argi eta ongi egituratuak osatzeko, neure ikuspuntua luze-zabal adieraziz. Badakit gai konplexuak adierazten gutun, idazlan edo txostenetan, garrantzizkoen iruditzen zaizkidan puntuak azpimarratuz. Gai naiz hartzaileari egokitutako estiloa erabiltzeko.	Gai naiz testu argiak jaritasunez idazteko, estilo egokian. Gai naiz gutun, txosten edo artikuluko konplexuak idazteko, argudioak egitura logiko eta eraginkorren bidez antolatuz, irakurleak puntu nagusiak ulertu eta gogoan har ditzan. Gai naiz idazlan profesionalak edo literatura-lanak idatziz laburtzeko eta kritikatzeko.



Irakasleentzako hainbat inplikazio

- Proposatutako marko berriaren oinarria, neurri handi batean, ia irakasle guztietan kalitatezko elebitasuna lortzea da, hizkuntza ofizialei dagokienez. Irakasleria horren zati batek, berriz, hizkuntza-gaitasun nahikoa egiaztatu beharko du hirugarren hizkuntza batean, ikasgaiak atzerriko hizkuntzan emateko.
- Ingelesari dagokionez, urte honetan zehar ISEI-IVEI azterlan bat burutzen ari da, DBHko lehenengo eta bigarren zikloko ikasleek eta Batxilergoek lortzen duten ingeles-maila ebaluatzeko. Kontuan hartu beharko da Ingelesaren Sarrera Goiztiarra Programarekin 4 urterekin hasi ziren lehenengo 96-97 ikasturtean egin zutela eta datorren ikasturtean amaituko dutela derrigorrezko hezkuntza.



Hizkuntza ofizialen gaitasunei dagokienez

- Gaztelaniaren hizkuntza-gaitasuna bermatuta dago eskola publiko eta itunpeko eskolako irakasle guztien kasuan.
- Egoera bestelakoa da euskarazko hizkuntza-gaitasunarekin. Datuen arabera, eskola publikoko irakasleen %80k egiaztatu dute 2.HE eta %6k 1. HE. Bestalde, itunpeko ikastetxetan, %63k egiaztatu dute 2.HE eta %4(e)k, berriz, 1.HE.
- Marko berria progresiboki ezarrita, sare bietako irakasleen euskarazko hizkuntza-gaitasuna bidezko modu batean hobetzen lagunduko luke. Urtero-urtero, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak 1081 pertsona liberatzen ditu irakastordu barnean; horrezaz gain, euskaraz lan egiteko gaitasuna hobetzeko, irakastorduz kanpora 3283 irakaslek ikasten dute.



Hizkuntza ofizialen gaitasunei dagokienez

Estimazioak

1. Haur eta Lehen Hezkuntza eskola publikoan:

- Marko berria 2008-09 ikasturtean ezartzen hasten bada Lehen Hezkuntzako lehenengo mailan eta 2013-14 ikasturtean amaitzen bada ezarpena, irakasle gehigarri hauek egiaztatu beharko lukete euskarazko hizkuntza-gaitasuna, hurrenez hurren:
 - 2008-09 ikasturtea: + 258
 - 2009-10 ikasturtea: + 75
 - 2010-11 ikasturtea: + 41
 - 2011-12 ikasturtea eta hurrengoak: 0
- Kopuru horiek kalkulatzeko, aldagarri hauek hartu dira kontuan: aurreikus daitekeen ikasgelen kopurua, 2. hizkuntza-eskakizuna egiaztatu gabe duen irakasle bitartekoen kopurua eta jubilazio-aurreikuspenak.

2. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eskola publikoan

- DBHn ere ikasturtez ikasturte ezarriko da sistema berria: 2014-15 ikasturtean hasi eta 2017-2018an amaituko da ezarpena. Beharrianak antzemateko irizpide bera erabilia, irakasle gehigarri hauek egiaztatu beharko lukete euskarazko hizkuntza-gaitasuna, hurrenez hurren:
 - 2014-15 ikasturtea: + 216
 - 2015-16 ikasturtea : 0
 - 2016-17 ikasturtea : + 709
 - 2017-18 ikasturtea : + 772



Hizkuntza ofizialen gaitasunei dagokienez

1. Haur eta Lehen Hezkuntza itunpeko ikastetxeetan

- Marko berria 2008-09 ikasturtean ezartzen hasten bada Lehen Hezkuntzako lehenengo mailan eta 2013-14 ikasturtean amaitzen bada ezarpena, irakasle gehigarri hauek egiaztatu beharko lukete euskarazko hizkuntza-gaitasuna, hurrenez hurren:
 - 2008-09 ikasturtea: + 45
 - 2009-10 ikasturtea : + 120
 - 2010-11 ikasturtea : + 211
 - 2011-12 ikasturtea : + 301
 - 2012-13 ikasturtea : + 385
 - 2013-14 ikasturtea : + 467
- Kopuru horiek kalkulatzeko, aldagarri hauek hartu dira kontuan: aurreikus daitekeen ikasgelen kopurua, 2. hizkuntza-eskakizuna egiaztatu gabe duen irakasle bitartekoan kopurua eta jubilazio-aurreikuspenak.

2. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza itunpeko ikastetxeetan

- DBHn ere ikasturtez ikasturte ezarriko da sistema berria: 2014-15 ikasturtean hasi eta 2017-2018an amaituko da ezarpena. Beharrianak antzemateko irizpide bera erabilia, irakasle gehigarri hauek egiaztatu beharko lukete euskarazko hizkuntza-gaitasuna, hurrenez hurren:
 - 2014-15 ikasturtea: + 363
 - 2015-16 ikasturtea: + 578
 - 2016-17 ikasturtea: 0
 - 2017-18 ikasturtea : 0



Hizkuntza ofizialen gaitasunei dagokienez

- Klaseak ingelesez edo ingeles-klaseak ematen dituzten irakasleak 1198 dira eskola publikoan eta 830 itunpeko ikastetxeetan. Frantsesko datuak hauek dira: 65 irakasle eskola publikoan eta 30 bat itunpeko ikastetxeetan.
- Atzerriko hizkuntzetan lortutako hizkuntza-gaitasunari buruz ISEI-IVEIk egingo duen azterlanean oinarrituta, behar izanez gero, antzemandako beharrizanetara egokituko dugu proposamena.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACION,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACION

www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net